

**Herrietako bestak**

Almandoz

→ 35

IGANTZI → 15

Udaberriko bestak maiatzaren 20tik 22ra

BASABURUA TTIKIA → 21

Harrobia egiteko hotsarekin kezkatuak

BAZTAN → 32

Aroztegiako proiektuaren eztabaida pil-pilean

BAZTAN → 34

XXIII. Mendi Itzulia maiatzaren 29an Arizkun

Udalerri Euskaldunen Eguna maiatzaren 28an Leitzan, '25 urte euskara hauspotzen' lelopean

1993an sartu zen Leitza UEMAn eta hurrengo urtean UEMA Eguna bertan ospatu zuten. Orduko hartan bezala, aurtengo Udalerri Euskaldunen Eguna Leitzan eginen dute eta egun osorako ekitaldiak prestatu dituzte. Eskualdeko zortzi udalerri daude gaur egun UEMAn: Arantza, Areso, Baztan, Bera, Etxalar, Goizueta, Igantzi eta Leitza.

→ 26

**Anaxtaxi BIDART ORGANBIDE | Urdazubiko dendari ohia**

ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL



Errepikatuko ez den irudia

Anaxtaxi Bidartek jubilazioa hartu du eta bere ama zen Pepita Organbidek 1952an irekitako negozioak ez du segidarik izanen. Urdazubiko herrigunea dendarik gabe gelditu da.

→ 36

**Xabier ELOSEGI | 'Gure erroen bila' liburuaren egilea**

«1793tik 1872ra bitartean eskualdeko 385 lagun joan ziren Lapurdira»

Lapurdiko herri batzuetako sortze, ezkontza eta heriotza agirietan Hego euskal herritar aunitz agertzeak arreta piztu zion eta 1793tik 1872ra bitartean izandako ezkontzak ikertu ditu. Horren emaitza da *Gure erroen bila* liburua, Lapurdi 1609 elkartearekin argitaratu duena.

ELKARRIZKETA → 3

ERREPORTAJEA → 4-5

'Euskaraz gara' dokumentala estreinatu dute

Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako 45 bat herritarren gogoetak bildu dituzte, euskaldun berri zein zaharrenak, euskaraz bizitzeko hautua egin dutenak.

ITUREN → 20

Malerrekako Eguna maiatzaren 28an

Elgorriagari lekukoa hartuz, Iturenen ospatuko dute Malerrekako Eguna. Omenaldien tartean, 85 urte baino gehiago dituzten herritarrak eta joaldun zaharrak omen-duko dituzte.





acQrn
Quality Language Learning

AILEGATU DIRA UDAKO IKASTARO TRINKOAK!!

INGELES, FRANTSES eta ALEMAN IKASTAROAK

- Helduentzako eta gaztetxoentzako ikastaroak
- Ikastaro trinkoak: egunean 2 ordu
- Ordutegi malgua. Eskolak astelehenetik ortziratera
- Hango irakasleak. Hizkuntza-murgiltzea
- Talde tikiak (gehienez ere 9 ikasle)
- Homogeneoak adin eta mailaren arabera
- Ikastaroaren hasiera: uztaila
- Aukeran 2 eta 4 asteko ikastaroak

Izena ematea irekita dago




Koskontako bidea, 11, beheka - LESAKA Tel. 948 637 135
E-posta: info@acornlanguages.com



www.acornlanguages.com

TELEFONO GIDA 2016

INGURUOTAKO TELEFONO GUZTIAK

Baztan | Bertizarana | Bortzirak | Leitzaldeia | Malerreka | Urdazuri



ttipi-ttapa
TELEFONO GIDA
Baztan | Bertizarana | Bortzirak | Leitzaldeia | Malerreka | Urdazuri



Ttipi Ttapako
Telefono Gida osatzeko
ESKUALDEKO **musika talde,**
bakarlari, txaranga eta abarren
zerrenda osatu nahi dugu.

LAGUNDU NAHI DIGUZU?

Bidali emailaz informazioa:
izena, helbidea, telefonoa
eta korreoa

bagoaz@ttipi.eus

Lapurdiko zombait herritako sortze, ezkontza eta heriotza agirietan Hego euskal herritar aunitz agertzeak arreta piztu zion Xabier Elosegiri, eta hori ikertzea erabaki

zuen. 1793tik 1872rako urteetan izandako ezkontzak ikertu ditu, baina soilik gizonenak «horiek dutelako deitura transmititzen». Horrela ondorioztatu du Biriatu eta

Urruña izan zirela urte horietan Hegoaldeko gehien hartu zituzten herriak. Eskualdeko herriei dagokienez, orotara 385 lagun joan ziren Lapurdira.

Xabier ELOSEGI | 'Gure erroen bila' liburuaren egilea

«Zuetako anitzek Lapurdin ahaiderik baduzuela jakitea aberasgarria da»

G. PIKABEA | LAPURDI

1793tik 1872rako datuak bildu dituzu liburuan. Zergatik urte horiek?

Ikusirik artxiboetan justuki 1793tik 1872rako urteetan, zonbat eta zonbat Hego euskal herritar agertzen ziren, pentsatu nuen ikerketa baten egitea. Artxiboak bi motatakoak dira: alde batetik, sortze, ezkontza, heriotza-agiriak eta bertzetik, notarien agiriak. Sortze, ezkontza eta heriotza-agirietan badira diferentziak, baina oro har, emankorrenak ezkontza-agiriak dira. XIX. mendeko agirietan beti aipatzen dira bi ezkontideen sortze data, sortze herria eta ofizioa, eta gaur bera bi ezkontideen burasoenak. Halaber, lekukoak ere aipatzen dira eta azkenik, sinadurak.

Hego Euskal Herriko gazte aunitz Lapurdin kokatu zirela diozu. Zenbatez ari gara?

Erran behar da ez zirela beti gazteak soilik joaten Lapurdira. Maiz familia osoak ziren han kokatuak ezkontzak gertatu zirenean. Familia horietako semeak ditut ikertu. Kasu batzuetan bizpahiru anaia eta arreba ere ziren esposatu. Orotara 896 kasutan senargaia Hego Euskal Herrikoa zen. Bi eta hiru aldiz ezkonduak kontuan harturik 853 senargai.

Horietatik zenbat izan ziren Hegoaldeko gure eskualdetik joanak? Baztandik 27: Arizkun-



UTZITAKO ARGAZKIA

Ezkerrean Xabier Elosegi, liburuaren egilea, eta eskuinean Mixel Mendiburu senpertarra Lapurdi 1609 elkarteko lehendakaria.

dik 8, Azpilkuetatik 4, Arraioz eta Erratzutik 3, Amaiur, Elizondo, Irurita eta Lekaroztik 2 eta Elbetetik 1. **Bortzirietatik 230:** Beratik 91, Etxalaratik 52, Arantzatik 51, Lesakatik 22 eta Igantzitik 14. **Malerrekatik 39:** Sunbillatik 13, Zubietatik 8, Donamariatik 6, Beintza-Labaiendik 4, Donztebetik 3, Oiztik 2 eta Elgorriaga, Ezkurra eta Saldiaitik 1. **Bertzaranatik 5:** Legasa eta Nartaretik 2 eta Oieregitik 1. **Leitzaldetik 13:** Goizuetatik 7, Aranotik 4 eta Leitzatik 2. **Zugarramurditik 37** eta **Urdazubitik 34.** Orotara 385. **Urtetik urtera aldaketa nabarmenik izan da datuetan?**

ZERGATIK LIBURUA?

«Ikusirik artxiboetan justuki 1793tik 1872rako urteetan zonbat eta zonbat Hego euskal herritar agertzen ziren, pentsatu nuen ikerketa baten egitea».

LIBURUA SALGAI

Liburua 10 eurotan eros daiteke Baionako Elkar liburu dendan, Lapurdiko mugako herri gehienetan (tartean, Sara, Azkaine eta Senperen), Lesakako Xagu eta Telletxea liburudendetan eta Berako Igone eta Elkar liburudendetan.

Badira aldeak. Lehen hogen urteetan, 1793tik 1812ra, 95 ezkontzaizan ziren. Bertze hamarkadetan, 1813tik 1822ra, 90 ezkontza eta gehienik 1833tik 1842rako urteetan, 185 ezkontza.

Liburuan gizonak bakarrik ageri dira, diozunez, «horiek dutelako deitura transmititzen»...

Sortuberrien deitura, orainko moldean aitarrena izan ki eta Frantziako estatuan soilik deitura bakarra aipatzen delarik, amarena erabat desagertzen da. Ene ustez, Hego Euskal Herriko gizon bezainbat emazte ezkondu ziren urte haietan Lapurdin. Guk aipatzen ditugun 385 horien artean 98k emaztea Hegoaldekoa zuten.

Ipar Euskal Herriko zein herritara joateko joera zuten?

Etsenplu batzuk emanen ditut. **Beratik** 36 Urruñara joan ziren, Azkainera 13, Sarara 12, Senperera 11, Ziburura 9... **Etxalartik** Sarara 33, Senperera 9, Urruñara eta Ainhoara 4... **Arantzatik** Sarara 18, Urruñara 12, Senperera 11, Azkainera 6... **Zugarramurditik** Senperera 13, Sarara 11, Urruñara 6, Ainhoara 4... **Urdazubitik** Ainhoara 14, Senperera 9, Sarara 8... **Lesakatik** Urruñara 7, Sarara 6, Biriatu eta Ziburura 3... **Sunbillatik** Sarara 7, Senperera 2...

Zein lanbide zuten?

Gehienak ez ziren ezkontzera joan. Bertan bizi ziren eta hamarretik zortzi laborarik ziren, gehienetan etxetiarak, maizterrak.

Azkaine, Sara eta Senperetik zer azpimarratuko zenuke?

Azkainen eta Senperen ezkondu ziren gehien gehienak laborariak ziren, funtsean, bertzeetan bezala. Saran 1938. urtean 25 ezkontzetan 15 Hego Euskal Herrian sortuak ziren, dudarik gabe, Lehen Gerla Karlistaren ondorioz. Muñagorriren partidaren zombait hilabetez Saran egon zen.

Zer nabarmenduko zenuke?

Zuen eskualdeko anitzek Lapurdin badutela ahaiderik, eta hori jakitea gaurza aberasgarria dela.

KULTURA → EUSKARAREN EGOERAZ SOLASEAN

Euskaraz bizi direnei hitza emanez

Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako herritarren gogoetak bildu dituzte 'Euskaraz gara' dokumentalean

Gogoeta eginaz, gogoeta eragin. Horixe da, *Euskaraz gara* dokumentalaren helburua; herritarren iritziak, bizipenak... partekatuz, euskarak eskualdean duen errealitatea marraztu eta jarrera kontzienteak eta indartsuak sustatzea «ezagutu eta lantzen dena maitatu egiten baita eta maitatzen denak iraun egiten du».

Eneritz IRAOLA

Josu, Pakita, Pello, Marian, Ibon, Irune, Gabriel, Ainhoa, Xabi... *Euskaraz gara* dokumentaleko protagonistetako batzuk dira; euskararen egoeraz hizketan aritu diren Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako zenbait herritar. Euskaldun berriak eta euskaldun zaharrak; euskaraz bizitzeko hautua egin dutenak denak.

GOGOETAK ARDATZ

Euskaraz gara dokumentala, duela pare bat urte Dabid Anautek, orduko Leitzaldeko euskara teknikariak, abiatu zuen proiektuaren emaitza da. Dokumental gisako euskarrien bitartez, euskararen inguruko gogoeta eragitea zen bere asmoa eta gogoeta hori eskualdeko eragileekin eta herritarrekin zuzenean partekatzea. Dabidek proiektuaren lehenbiziko harriak jarri eta iaz Kristina Urrutiak hartu zuen Dabiden lekukoa Areso, Arano, Goizueta eta Leitzako herritarrekin batera, dokumentala onduz. Apirilaren 29an estreinatu zuten Areson eta Goizuetan maiatzaren 13an. Aranon

Aurkezpenak

Arano. Maiatzaren 20an, Udaletxeko bilera gelan 19:00etan.

Leitza. Maiatzaren 25ean, 20:00etan, Udaletxeko Batzar Aretoan.

maiatzaren 20an izanen da ikusgai 19:00etan udaletxean eta Leitzan maiatzaren 25ean 20:00etan udaletxean.

PARTE-HARTZE HANDIA

la 45 lagunek parte hartu dute eta bakoitzak bere bizipenak, esperientziak... azaldu ditu. Bakoitzak berea, baina ideia beretsuak ere aipatu dituztela azaldu dio Ttipi-Ttapari Kristina Urrutiak «gure eskualdean hizkuntzarekiko lotura handia dugula nabarmen geratu da dokumentalean eta, seguru aski, indar horrek eusten dio hizkuntzari bizirik, oraindik ere. Normaltasunez ari gaitzkeelako egunerokoan euskaraz lau herriotan». Euskara zer den galdetuta emandako erantzunek ere argi uzten dute

lotura hori «odolean da-ramadan zerbait, nere bizitzako oinarri garrantzitsuena, betetzen nauden hizkuntza, altxor bat, gurea den zerbait, gu gara...» diote.

GABEZIAK ERE AGERIAN

Herritarrek egindako gogoetak, landu beharreko arloak zeintzuk diren ikusteko ere baliagarriak dira Kristinaren ustez «oso gune euskaldunean bizi garela kontziente da jendea, baina poliki poliki gaztelera nahi baino gehiago sartzen ari dela ohartuta gaude. Gaztelaren uholdea izugarria da eta horren aurrean esfortzu bat egin

behar dugu euskararen alde, euskaraz bizitzen segi nahi badugu». Dokumentalean Migel Mari Elosegik Luzek ere hala azaltzen du «euskara irlatxo bat da erderaz inguratua. Internet edo telebista... kanpoko hori dena erdera da portzentaje oso oso altuan. Naturako edozein espezie, animalia, landare... batekin gertatzen den bezalaxe, egoera horretan epe luzera kontserbazioa bermatu ahal izatea oso zaila da».

JAKIN ETA ERABILI EZ

Moda kontuak direla, ohiturak, kontzientzia fal-

DATUA

45

HERRITAR

inguruk parte hartu dute. Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako Euskara Zerbitzua herri bakoitzeko euskara taldeekin aritu da elkarlanean.



GARRANTZIA

«Dokumentalak agerian utzi du, ez gaudela gaizki baina ez dugula lo hartu behar. Irabazitako terrenoa galtzen utzi gabe, lanean segi behar dugu euskararen alde».

Kristina URRUTIA

Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako euskara teknikaria

ta, utzikeria... ingurune euskalduna izanagatik, gazteleraz solasten dutenak ere ez dira gutxi. Kezka eta nahigabea sortzen du horrek askorengan. Besteak beste, Joxefe Lizarraga mintzo da gaiak dokumentalean «euskara pobrea dela pentsatzen dute. Euskara zakurrekin eta umeekin hitz egiteko erabiltzen dute. Azkenean horretan gelditzen da eta abilitadea ere galdu egiten da, el-karrizketa sakonago bat eramateko gaitasuna galdu egiten da ez baduzu erabiltzen».

EUSKARAREN KALITATEA

Euskararen kalitateaz ere dezente aritu dira eta belaunaldi batzuetatik besteetara alde nabarmenak daudela diote gehienek «esamolde, hitz jakin batzuk... galdu egin dira, baita jarria ere».

EUSKALDUN BERRIAK

Euskaldun berrien papera ere nabarmendu dute dokumentalean. Euskaraz ikasi dutenen hitzak ageri dira: izan dituzten zailtasunak, pozak... eta ahaleginak izan duen ordaina. Eta euskaldun zaharrek, euskaldun berriei izaten duten jarrerari buruz ere autokritika egin dute. Bidea errazten ote zaien, euskara ikasteko egiten duten ahaleginaz kontziente ote diren... Marta Chivitek dion bezala, ez da ahaztu behar euskara ikasten ari denak askotan «euskaraz ahal duena esaten duela eta ez nahi duena».

ETORKIZUNAZ

Etorkizunaz galdetuta, herritarrek ozen aipatu dute babestu beharra dagela «galtzen uzten badugu, gure herriaren arima galduko delako eta zer litzateke Euskal Herria euskararik gabe?».

'EUSKARAZ GARA' DOKUMENTALEKO GOGOETAK

Juan Antonio LEKUONA | GOIZUETA



«Abesbatzako zuzendaria etorri zitzaigun esanez udan Lazkaora joan behar zuela mintzapraktika egitera. Eta esan genion, ez duzu hara joan beharrik, hemen gurekin ederki egingen duzu!».

«10 euskaldunak eta bat erdalduna baldin bada, 11 pertsona gaude baina denak erderaz hitz egiten»

Jaione OLAZABAL | ARESO



«Euskaraz jakinda gazteleraz hitz egitearen arrazoiak bi direla pentsatzen dut. Beraien gazte denboran erderaz ikasi izana agian, eta gehienbat ohitura kontua. Uste dut badagoela jendea bere ingurukoekin euskaraz hitz egin nahiko lukeena baina bestera ohitu direnez, aldaketa hori egitea kosta egiten zaie».

Patxi LIZARRAGA | LEITZA



«Euskararen kalitatean hiru belaunaldi konparatzen badira kafea, kafesnea... eta azkenekoa deskafeinatua ateratzen ari da eta hurrengoa zer ote da?».

«Zerbait baldin bada euskara da gurea, eta hori ez baldin badugu mantentzen, hortik aurrera zer mantendu behar dugu?»

Jose MANUEL MUÑOZ | ARANO



«Ikusten nuen askotan zailtasunak izaten nituela bertako jendearekin komunikatzeko. Horregatik, euskara ikasi behar nuela pentsatu eta euskara ikasten hasi nintzen».

«Pena ematen dit esamolde zahar batzuk, antzinako gauzak esateko era edo hitzak, galtzen ari direla ikusteak».

Oihana LUJANBIO | GOIZUETA



«Euskarak kalitatea galdu duela, irakasleen artean asko aditzen da hori, gaizki hitz egiten dela orain. Zaharrek ere hori esaten dute, diferente... Ez dakit, beti aldatu da hizkuntza, orain seguraski belozidade haundiagoan, baina, aldi berean hizkuntza batek bizirik egotea beharrezkoa du egokitzea eta aldatzea».

Pakita ARREGI | ARESO



«Zerk salbatu du lehenago ere euskara? Familiak. Etxe oso inportantea da, bizitzako bizipenik barrukoenak etxean jasotzen dituzu».

«Gaur egunean ikusten dut garai bateko bezalako militanterik ez dagoela. Bizitza soluzionatuta daukagu erderaz. Esfortzu bat egin behar da».

Mari Jose SARRATEA | LEITZA



«Bidea luzea izan da, esfortzu handia suposatu du baina bere ordainsaria izan du. Nire sustraiak berreskuratzen lagundu dit. Aita euskalduna izanik, nik uste, beti izan dudala hutsune bat barrenean. Euskarak bete egin dit hutsune hori eta jendearekin harremanak sendotzeko aukera ere eman dit».

Xabi LEGARRETA | ARANO



«Edozein delarik lekua lehenbiziko hitza euskaraz egin behar genuke, gero beste aukera hor dago bueltan ez badigute euskaraz erantzuten».

«Euskarari zergatik eutsi behar geniokeen? Lehenbizi ikasi nuen hizkuntza delako eta maite dugulako, gurea delako».

**Nire txanda**

Fernando ANBUSTEGI

ETB, euskara... eta hipokrisia

Denak asaldatuak Nafarroan ezin izanen delako ETB ikusi. Onartezina da, salagarria, noski. Euskarari bertze eraso bat da. Azkena? Ez dut uste.

ETB Nafarroan ez ikustea erabaki politikoa da eta berriz erranen dut, ez genuke onartu behar. Salatu eta gibelerat bota beharko litzateke, berriz ETB ikusi ahal izan dezagun.

EAEko zein Nafarroako politikarien adierazpen, txio... aunitz ikusi eta irakurri ditut ETBren emisioa eten behar izan dela salatuz. Onartezina dela, erabaki politikoa dela, ...eta ados nago beraiekin. Baina...zer diote EAEko eta Nafarroako politikariek Nafarroako euskarazko hedabideei buruz?

Gogoratuko diot Eusko Jaurlaritzari, Nafarroako euskarazko hedabideei ematen zigun dirulaguntza 0 eurora murriztu digula? Nafarroan ETBren bertze batzuk egin bezala, gu, ixilpean ito gaitue-la? Gogoratuko diogu Nafarroako gobernuari, aurt-en, UPNren gobernuak bere garaian ematen zuen dirulaguntza baino urriagoa emanen digula? Baina ETB eta Nafarroako euskarazko tokiko hedabideok kontu desberdin dira, ezta?

Ezpala

Aitor AROTZENA

Amuriza eta Euskal Telebista

Destino zer den! Aste berean ailegatu dira bi albisteak: Xabier Amurizak plazan kantatzeari utzi diola eta ETBren LTD bidezko emisioa eten dutela Nafarroan. Eta bertsolaritza eraberritu zuenak 1980ko txapelketan kantatutako bertso hura burura: *Etor bedi euskal telebista ez bada hain zaila; eta beste bi katei ezarri metra...* (Mozal Legeak aixturrez moztutako bertso bukaera).

NabarmentzekoakENDIKA Urrutia
Sagardoaren txapeldunPedro IGLESIAS
Bidasoko LehenbizikoaAnaxtaxi BIDART
Urdazubiko azken dendaria

Segurolarekin bikote eginez Sagardoaren txapelketa irabazi du saldiastarrak. Finalean 38-40 irabazi zieten Uterga eta Aizpuru III.ari. Apirileko erremontelari onena ere izendatu dute.

Maiatzaren 1ean ireki zen arrantza denboraldia eta goiz berean atez zuten Bidasoko lehenbiziko izokina arrantza-le irundarrak. 2.250 gramoko arraina 1.700 eurotan saldu zuten.

Erretiroa hartu eta 1952an Pepita Organbide bere amak ireki zuen denda segidarik gabe gelditu da. Salbatore besten hondar egunean eman zioten despedida.

Atzera begira → 2006-V-18 / TTIPI-TTAPA 422 zk.

**Berako suhiltzaile parkea mendeurrena ospatzen**

1906ko martxoaren 11n sortu zen Berako suhiltzaile boluntarioen parkea eta hortaz, mendeurrena ospatu zuen duela hamar urte. Nafarroako babes zibileko boluntarioen eguna ere Beran ospatu zuten. Parkearen historia eta egungo egoeraz aritzeko Manuel Iriarte eta Josu Goia suhiltzaileekin bildu zen TTIPI-TTAPA. «Ingurua ezagutzea hagitz garrantzitsua da, sua itzaltzera joaten zarenean, lehenbiziko gauza apuro ordu baterako ihes egiteko aterabidea garbi eduki behar duzu. Horretarako mendia ongi ezagutu behar duzu» zioten. Hori bai, «bizi bat edo baserri bat salbatzea lortzen duzunean satisfakzio izugarria da».



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.eus

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredakzioa** Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola, Arantza Agirre **Berriemaileak** Juana Mari Saizar, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urroz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maider Petirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Gofii, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Nerea Tellebxa, Mattin Larraide, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leizta, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2016ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Leizta	20€
Hego Euskal Herria	40€
Ipar Euskal Herria, Europa	74€
Amerika eta Australia	124€

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua



Bortzirietako Euskara
Mankomunitateak
diruz lagundua



Kolaborazioak

UPN eta PP-koen txisteak

Xanti BEGIRISTAIN MADOTZ

EITB lortu dutenean itzaltzea Nafarroako lurralde gehienean, eta beraien historian zehar, euskarari jarri ahal izan dizkioten oztopo guztiak jarri ondoren, UPN eta PPkoen bozeramaileek oraindik daukate ausardia, gure muturtxoan aurrean esateko euskara gogotik maite, bultzatzen eta babesten dutela, eta betidanik, gainera; horixe dela hoberena Nafarroako hizkuntzarentzat! Jaun-andreok, mesedez, emadazue baimena barre egiteko halako astakerien aurrean: kar-kar-kar! Hori, beraiek eta beren jendeak ere ezin dute sinistu. Juan Luis Sanchez de Muniaín eleduna, berehalaxe agertu da jendearen aurrean, bere berezko argitasunarekin, adierazteko hori egin dutela Nafarroako komunikabide eta hedabide beren-berekiak babesteko. Otoi, baimena berriz ere barrez lehertzeko: kar-kar-kar! A zer-nolako ateraldiak gizon buru azkar honek! Antza denez, Estatuko, Europako eta gainerako kontinenteetako hedabideetatik ez dira babestu

behar Nafarroakoak; soil-soilik EITB arrunt arriskutsu horretatik!

Geroxeago, Javier Espartzak (abizen super *nabarrisimoa*) jarri du bere aurpegi borobil eta alaitzua mikrofonoen aurrean, guri irakas-teko, alajaina, EITBk legezkota izan behar eta hala jokatu behar duela! Arren, berriz ere zuen eskuzabaltasunaz, barre eginen dut txiste honen aurrean: kar-kar-kar! A zer burutazioa! Noski, hogeitaka urtean ez dute denborarik izan, gaixok, halako katea legeztatzeke. Nola edukiko zuten, ba? Ezinezkoa da, batez ere beren adimena gogoan hartuta, ezta hala?»

Eta, azkenik, Julen Sesmaren *gatza* entzun ahal izan dugu. Behin eta berriz zioen, EITBk, Nafarroan ikusi ahal izateko, ezinbestean ordaindu behar duela ez dakit (berak ere ez zekien) zer sos kopurua. Kar-kar-kar! Bai, jakina, Aragoi, Errioxan, Burgoen eta Kantabrian, konparaziora, ordaintzen duen bezala-bezalaxe!, ezta hala, azkar ustekoa? Edota, Nafarroan ikusi ahal omen diren 100 kanal baino gehiagok ordaintzen duten moduan! Kar-kar-kar! Halako pailazoekin, zertarako Txirri, Mirri eta Txiribiton zaharrak?

UPN eta PPko bozeramaile askok hor jarraitzen dute, beren lotsarik lotsagarrienak batere lotsarik gabe, behin eta berriz jende guztiaren aurrean erakusten. Kar-kar-kar!, negar ez egiteagatik.

«Noski, hogeitaka urtean ez dute denborarik izan, gaixok, halako katea legeztatzeke. Nola edukiko zuten, ba? Ezinezkoa da, batez ere beren adimena gogoan hartuta, ezta hala?»

OSASUNEZ

Umetasun zoriontsua izateko dekalogo

[Malerrekako Pediatria.](#)

[Iturria: www.aepap.org](http://www.aepap.org) www.familiaysalud.es

1. Umeari beti erakutsi behar diozu zuretzat oso inportantea dela. Baldintzarik gabeko maitasuna erakutsi behar diozu adin guztietan hauexek baliatuta: hitzak, irribarreak eta keinuak, musuak, besarkadak, ferrekak...

2. Haren osasuna zaindu eta osasuntsu hazten lagundu. Zeu zara haren eredu. Irakatsi bizimodu osasungarriak eramaten, besteak beste, elikadura, jarduerak fisikoa, loa, higiena baita emozioak bizi izaten ere. Umore zentzua eduki behar duzu.

3. Egunero, hari denbora eman. Harekin jolastu gustuak edo nahiak gehiegi zuzendu gabe. Umeak aisialdia izaten saiatu baina bere erara. Izadiak elkarrekin gozatu.

4. Gauza materialak ez dira pilatu behar. Eman beharreko denbora eta transmititzen dizkiozun edukazioa eta baloreak dira herentziarik onena.

5. Maitasunez hezi. Ondo egiten duena laudatu baita ahalegina ere. Bete ahal eta behar dituen arauak jarri: gutxi, argiak eta adinera egokituak. Txarto dagoe-na irakatsi, bortizkeria, zigorra eta umilazioa baliatu gabe.

6. Umearen ikaskuntza piztu eta bultzatu. Txiki-txikitik janztea, bere burua garbitzea edo jatea bezalako eguneroko jardueretan haren burujabetza suspertu. Ez eman dena eginda. Ona da gutxi-gutxika ardurak izatea.

7. Umeari txikitatik entzun eta mintzatu. Haren munduarekiko interesa erakutsi, adin bakoitzeko aldaketara egokitu eta den modukoa onartu eta baloratu: bakarra eta ezberdina.

8. Segurtasuna, lasaitasuna eta konfiantza transmititu. Errealak ez diren beldurak ez sortu, emozioak ulertzen lagundu iezaiozu. Horrela, autoestimua, motibazioa eta gaitasunak indartuko dira.

9. Utziozu ume izaten. Garaia heldu baino lehen helduen kezkek ez ditu jakin beharko. Horiek horrela, bizitzaren eginkizun garrantzitsuak ezkutatu gabe. Gai xotasuna, mina eta heriotza egon badaudela eta bizitzaren zati bat direla irakatsi eta ulertzen lagundu behar diozu...

10. Familiarekin eta lagunekin umearen harremanak sendotu. Bizitza guztian zehar ondoan izango dituzte. Besteen lekuan jartzen lagundu iezaiozu. Elkarbizitzen eta maitatzen ikasiko du.

Irakurleak mintzo

Goza dezagun dantza, bada tenorea!

Aitziber ZAPIAIN
(Plazara Dantzara herri ekimenaren izenean)

Udaberria heldu da eta, loraldiarekin batera, iritsi dira gure herrietako bestak ere. Aurtan, iaz bezala, Mutildantzaren doinu gozoa entzuteko aukera dugun plaza guztietan elkartuko gara berriz ere, plazak dantzan jarriaz.

Denek dakigu Mutildantzak, gainontzeko tradizioak bezalaxe, etengabeko egokitzen eta eraldaketan fruitu izan direla jaio zirenetik, etengabeko aldaketak egiten baitu tradizioa tradizio. Alta, horixe da tradizioaren ezaugarri nagusia, ez baitu irauteko beste modurik. Horregatik, pertsona askeak egingo gaituen tradizioa sortzea dugu helburu; zamarik gabeko tradizioa, bazterketarik gabekoa. Horixe Plazara Dantzaren nahia, horixe gu guztion beharra.

Ohitura segurtasuna dugu, heldulekua. Baina behar al dugu itoko gaituen heldulekurik? Gizartearen erdia baztertuko duen tradizioarik? Emakumea, historikoki, gizarteko alor guztietan, eta doike, dantzetan ere, baztertua egon da. XVI. Mendean, elizak ikaragarizko ahalegina egin zuen emakumea plazaetik kanporatzeko. XXI. Mendean, gizon batzuek berriz ere elizaren babesa behar izan dute

plaza pribatuan dantza-tu eta emakumea baztertzeke. Hori al da idatzia utzi nahi dugun Baztango historia?

Berako makildantza, Zuberoako maskarada, Tolosako bordon dantza, eta nola ez, Baztango Mutildantza, adibide nahikoak dira frogatzeko emakumeen partehartze normalduak ez dakarrela inolako kalterik, ez tradizioaren haus-turarik, ez kalitate galararik. Aberastasuna dakar, horra diferentzia!

2013.urtean Plazara Dantzaren agerraldi bat-ean zoriendu genuen Baztan, mamuak uxatu eta gibelerat bueltarik ez zuen bidea abian zela. Hiru urte beranduago, berriz ere Baztandarrak zoriontzeko arrazoia soberan ditugu. Gure ondarea partekatuz, gure altxorra gozatuz, dantzatuko gara berriz elkarrekin Baztango plazetan mutil, neska, neskato, gizon zein emakume. Urte osoan elkar ikusi ez dugunarekin ere, aske eta umorez, dantzatuko gara. Hori baita dantza, hori baitezake dantzak. Aunitz urtez!

Aroztegia eta «ez zara gure ordezkaria»

Pello IRIARTE (Na Bai 2011-ko zinegotzi ohia eta herri-galdeketa aldekaria)

Badirudi herri kontsulta ez babesteko Baztango Geroa Bairen estrategia berria, aitzai-

kia edo dena delakoa, EH Bilduri noizbait herri kontsulta baten aurka egon izana egozte dela. Gainera, kontsulta egitearen aurka egon zireneko hiru ustezko kasu aipatzen dituzte. Ez denean ahaztu behar:

1. 2007-2011 legealdian Na Bai kontsulta egiteko aukera kontuan hartu zuela (bitxia da kontsultak aurrera egin ez izana Na Bai udal-ean gehiengo izan eta oposizio bakarra UPNre-na zenean).

2. 2011n Na Bai-ko zinegotzi eta ordezkari bakarrak (nik neuk), herri-galdeketa aldeko mo- zio bat aurkeztu zuen.

3. Eta azkenik, Bilduk ez zuen herri galdeketa egitea planteatu UGPSa tramitatzen ari zen bitartean. (UGPSren promotoreari zegokion herri egitea baina berak aukera hau ez zuen kontuan izan, tramiteak erdi-ezkutuan eta azpikeriaz egin zitue-lako agian).

Gauzak argitze alde- ra, 2011n herri-galde- keta bat egin ahal izate- ko aurkeztu nuen mo- zioa izanen dut hipside:

Aroztegiaren inguru- an 2009an batzarrea egin zen Lekarozen eta ber- tan gehiengoak proiektu- aren aurkako iritzia azaldu zuen. Udalak, Na- Bai-ko zinegotzi gehiengo- a, lur- saila birkalifikatzea era- baki zuen, enpresari ba- besa erakutsi eta Leka- rozko herriari bizkarra emanaz. Proiektu turis- tiko eskualdearen gara- penerako ardatza izan zi- tekeela zioten. Egiazko golf zelaia (18 zulokoa), hotela eta urbanizazioa bere baitan hartzen di-

tuen proiektuaz ari naiz solasean, Auzitegi Go- renak lege kanpoko del- a berretsi zuenaz, Nafarroako Justizia Au- zitegi Gorenak emanda- ko epaiari arrazoi ema- naz.

2011n Bilduk proiektu- aren aurkako mozio bat aurkeztu zuen eta Na Bai 2011aren izenean (ordu- an ni nintzen zinegotzi bakarra), Baztanen herri-galdeketa bat egite- ko mozioa aurkeztu nu- en, aferak eremu zaba- lago bati eragiten ziola uste nuelako.

Bildu eta Baztango Ezkerrak galdeketa- ren aurkako botua eman zu- ten, Lekarozko batzarrea aurka agertu zela eta bertze proiektu batzue- tan batzarrean hartuta- ko erabakia galdeketa beharrik gabe errespe- tatu izan zela argudiatu- ta, (Amairuko Kisua ka- su). Dena den, orduko alkateak aipatu zuen (ha- la ageri da orduko aktan ere) proposamenak be- harrezko sinadura kopu- rua lortuko balu, Bazta- nen herri-galdeketa egi- tea babestuko zuela.

Handik denbora gu- txira, Aroztegia proiektu- a lege kanpoko de- klaratu zuten. Orduan Nafarroako Gobernuak ontzat eman zuen parti- kular batek bultzatutako UGPS eskaria. Enpresa- ri laguntza eskaini eta bi- de batez, Bilduren es- kuetan zegoen udalaren gainetik jartzeko modua zen hau.

Berriki, Lekarozko herriak batzarrean herri- galdeketa babestea era- baki du (ez soilik Leka- roz, Baztan osoan egi- nen litzateke galdeketa).

EH Bilduren babesa du galdeketa. Geroa Baik, ordea, (euren erranetan Na Bairen ondorengo ba- karrak) galdeketa egitea- ri ezezeko borobila eman dio.

Zoritarrez, ongi eza- gutu nituen orain Geroa Bairen parte diren ordu- ko Na Bai-ko ordezkariak. Euren hirutasun txit san- tuarekin (Aroztegia, Zil- betiko harrobia eta die- tak) zerikusia zuten era- bakiak ezbaian jartzen nituenen, «zu ez zara gure ordezkaria» esaten zidatenen mespretxua jasan behar izan nuen maila pribatu eta publi- koan.

Eztabaida sortzen du- en proiektu baten ingu- ruan herri-galdeketa bat egitea ezinbertzekoa de- la pentsatzen segitzen dut, 2011n bezalaxe. Pu- blikoki eta gardentasu- nez informazioa emanaz, aldeko eta aurkako ar- gudioak aintzat hartuz. Zein da ondorioak pai- ratuko dituzten herrita- rrei galderarik ez egite- ko arrazoiak? Zeren bel- dur dira? Agian ez gara proiektu bat komeni zai- gun edo ez baloratu eta erabaki bat hartzeko gai? Funtsean, herri-galde- keta egiteko eskubidea ukatuta, Gero Baik adingabe edo gaitasu- nik izanen ez bagenu bezala tratatzen gaitu.

Baina Baztango Ge- roa Baik, bereari eutsiz, temati jarraitzen du. Al- daketa beharrean, Ge- roa Bai egiten ari dena iruzurra da. Ez da harri- tzekoa, begiak ireki eta aspertuta nik euren in- gurutik alde egin izana. Aroztegia: herri-galde- keta orain.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.eus

Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**

Tel.: **948 63 54 58**

Faxa: **948 63 54 57**

Prentsatik bildutakoak



«Etxeko zakurra zu baino inportanteagoa da, nire denboretan beti. (...) Bakoitza bere lekuan: aberats sortzen dena, aberats, baina pobre sortu garenok ere badugu geure urguilua, gero! Neskato zaren etxean umeak baldin badira, bada bertze gauza bat: hartzen duzu eta ematen duzu, hor ez zara hain bakarrik. Suertatu nintzen Parisen».

Julia BARBERENA
Zugarramurdiko neskatoa
ARGIA 2016.05.01



«Leku askotan gizarte zibilak errepresioarekin izan duen kolaborazioa ikertu dute. Gurean ez. Dokumentazioaren desagerepe-na eliteen agindu batiesker etorriko zen ziurrenera, baina Nafarroan Gerra Zibilean jazotakoa isildu izana gizarteari zor zaio. Karlsten parte-hartzeaz, adibidez, isiltasun-ituna egon da nafarroagoak dire-lako, katolikoagoak».

Fernando MIKELARENA
Berako historialaria
ARGIA 2016.05.01

11 galdera labur

Nor da Jaione Agerre?

94an jaioakoa neska almandoztar ameslari bat.

Ikasle bizitza bezelakorik ez omen dago. Egia ote?

Hala omen! Baina nere ustez gauzak aunitz aldatu dira eta gutti-ikusten dituzte azterketa garaia heldu delarik pasatzen diren nerbioak.

Herriko bestak iristerako azterketak bukatuta?

Kasualitatez bestetako ortzira-lean dut lehenbiziko azterketa, baina moldatuko naiz festetan ez falta-tzeko!

Zein da Almandozko bes-tetako bereizgarria?

Dudarik gabe herriko giroa! Parekorik ez da inon harpa-tzen ahal.

Besta egin ahal izate-ko, lana ere egin behar...

Ba bai, eta aurten gehiago! Baina gogo onez hartuko dugu kontua, lanean ere giroa aprobetxatu eta disfrutatzen da.

Arratsa edo eguna duzu nahiago?

Bietan ere orduak ahalik eta hobekien kudeatzen saiatzen naiz. Asteazkenean zehar ikasi eta as-tebueretan momentuz suertea

dut eta lanean ari naiz.

Kantuan ere aritzen omen zara...

Egia erran musikarako afizioa ttiki-tatik heldu zait. 9 urterekin trikitila-rien munduan murgildu nintzen. Oraindik jotzen dut tarteka, pixka bat deskonektatzeko. Eta kantuan 16 urte nituelarik hasi nintzen, ko-rua sortu zelarik. Orain ikasketak direla eta ez dut denbora aunitzik.

Asteburuko planik hoberena?

Orain arte besta egitea. Orain lanean ari naizela... lo egitea!

Ihes egiteko toki bat?

Italia, betidanik joan nahi izan dut. Edo bertzenaz, Dis-neyland Paris.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Beltzez pinta-tzen dakute, baina nik uste kolo-re gehiago badirela.

Amets bat...

Haur hez-kuntzako hezitzailea izatea.



Jaione AGERRE → Almandozko gaztea

saroha
gozotegia okindegia

pº de eztegarra 25 bajo
31780 bera (navarra) t.948 63 08 99
www.sarobe.net

MARITX

Legia, 23-BERA Erakusketa, Proiektu eta
T. (0034) 636 617 450 Instalazio Elektrikoak

LABE ZAR

Tel: 948 631 076 · BERA

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.com

KATEA BIKE

BIZIKLETEN
SALMENTA
ETA
KONPONKETA.

Eta orain,
GIMNASTIKA
ETA FITNESS
MAKINAK,
bizikleta estatikoak
lasterketako zintak ...

Kanttonberri 1, BERA 948 631 218
kateabera@telefonica.net

MASSIMO ORBEA MERIDA SCOTT BH

BAR Botxo OSTATUA

Zalain · BERA · 948 630 052

JAIONE-COXOTEGIA

948 630 786
Altzate, 21 · BERA

BORTZIRIAK

GIZARTEA → APIRILAREN 25EKO BATZARRA

Arreta psikologikorako zerbitzua martxan jarri nahi du Elkarrizan taldeak

**Boluntario
taldeak
zuzendaritza
batzordea
berritu du**

TTIPI-TTAPA

Elkarrizan boluntario taldeak, Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen eta La Caixaren Gizarte Ekin-tzaren laguntzaz, arreta psikologikorako zerbitzua eskaintzen hasi nahi du Bortzirietan, gaur egun eskaintzen dena sendotu eta osa-

tzeko eta, batez ere, gizarte bazterketa arriskua duten kasuei lehen-tasuna emanez: depresioa, dolua, ezintasuna, bakardadea, genero indarkeria, bullying, droga kontsumoa, epe lu-zeko langabetuak...

Zerbitzu honekin bi helburu bete nahi lituzkete; lanpostu bat sortzea eta gaur egun ez dagoen osasun eta gizarte arloko zerbitzua martxan jartzea. Elkarrizan elkartearen ilusioz daude urte bukaerarako martxan jarri nahi duten egitasmo honekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

Elkarrizan taldeko boluntarioak, batzar nagusiaren ondotik.

ZUZENDARITZA BATZORDE BERRITUA

Maiatzaren 25ean egin zuen urteko batzarrean zuzendaritza batzordea berritu zuen Elkarrizan taldeak.

Maria Angeles Biurarena izendatu zuten presidente, Margarita Susperregi presidente orde, Josune Lopez diruzain, Jose Mari Irazoki idazkari, Adrian Sanchez eta Ramon Errandonea bokal eta Alfon-

so Obeso koordinatzaile.

Elkarrizan boluntario taldeak pertsonak laguntzera zuzendutako ekintzak egiten ditu, batez ere Lesakako Andra Mari eta Berako San Jose Zahar Etxeetan dauden bizilagunei lagunduz. Lesakan astearte-ro paseoa egiten dute eta Beran, ortzegun arratsaldetan euskal kantak. Horretaz aparte, Beran ere astelehenero pa-

seoak ematen hasi nahi dute. Berako Uxane-koekin ere kantuan aritzen dira. Horretaz gain, udan gizarte bazter-tze arriskuan dauden familietako haurrei eskola laguntza eskaintzen diete eta etorri heldu-en gaztelarazko alfabetazioa ere egiten dute. Familien laguntza ez duten pertsonak medikura edo ospitalera laguntzeko garraio zerbitzua ere eskaintzen dute.

UZTAILEAN ETA ABUZTUAN, BORTZ HERRIETAN

Udaleku irekiak antolatu ditu aurten ere Euskara Mankomunitateak

**Izena emateko
epea maiatzaren
27ra arte zabalik da**

TTIPI-TTAPA

Ikasturtea bukatu eta uda ailegatzearekin batera, udaleku irekietan parte hartzeko aukera izanen dute haurrek Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesakan. Aurten ere, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak antolatu ditu, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearekin eta Dindaia Fundazioarekin elkarlanean. Iaz bezala, Caixabank erakundeak udalekuak babes-

tu ditu. Arantzan, Beran eta Etxalarren udalekuak uztailaren 4an hasiko dira, eta uztailaren 29ra arte arituko dira. Lesakako eta Igantziko kasuan, udalekuak uztailaren 12an (asteartearekin) hasiko dira, eta abuztuaren 5ean bukatuko. Herri guztien kasuan, udalekuak 10:00etatik 13:00ak arte izanen dira.

IZEN-EMATEA

Izen ematea zabalik egonen da maiatzaren 27ra arte, ortziralea. Bi bide izanen dira izen emateko: bata, mankomunitatearen web orriaren bidez (www.bortziriaak.eus), eta bertzea telefonoz deituta

(948634125, 9:00etatik 13:00ak arte). Taldea sortzeko beharrezkoa da herri bakoitzean gutxienez 8 neska-mutikok izen ematea.

Udalekuetan onartuak izateko lehen-tasuna izanen dute Bortzirietan errolatuak eta bertako ikastetxeetan (D eta B ereduetan) matrikulatuak dauden neska-mutikoek.

Hasierako izen ematea behin-behinekoa izanen da. Epea bukatu ondotik, izandako eskaera guztien artean zozketa egiten da, eta ondoren familia bakoitzari konfirmatuko zaio plazarik baduen.

Iaz hasitako bidetik, udalekuetan izen ematen ahalko

da lau asteetarako edota hamabortzaldiki. Horren arabera matrikularen prezioak aldatu egingen dira. Honela, ume batek 90 euro ordaindu beharko du lau asteko udalekua (50 euro bi astekoa); bi anai-arrebak 150 euro lau astekoa eta 80 euro bi astekoa eta hiru anai-arrebek 90 euro bi astekoa.

Horrez gain, zailtasun ekonomikoak dituzten familiek matrikularen % 50 ordainduko dute. Baina horretarako Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatera (948 635 036) jo behar dute eta bertan beharraren balorazioa egiten dute.

KULTURA → MAIATZAREN 19 ETA 20AN

Mugaz Gain Antzerki Jaialdian herrikoen txanda

Labiaga, Ricardo Baroja eta Jesusen Bihotzako ikasleak igoko dira Kultur Etxeko taulara

TTIPI-TTAPA

Joan den ortziralean hasi zen Kultur Etxean Mugaz Gain antzerki jaialdia Antzerki eta Eskola Elkarteak antolatuta eta Udalak eta Kultur Batzordeak lagunduta. Pasaia-Lezo Lizeoko DBHko ikasleek *Berpiztu ala bizi* antzezlanaren eskaini zuten.

Aste honetan, herriko antzezle ttikien txanda izanen da. Maiatzaren 19an, ortzegunean, 10:00etan *Ura* antzezlanaren eskainiko dute Labiaga ikastolako LHko 5. mailako ikasleek eta 12:00etan *Desberdinak baina berdinak* antzezlanaren Ricardo Baroja Eskola Publikoko LHko 5.

eta 6. mailako ikasleek. Hemen ere euro 1 ordaindu beharko da sarrera. Ortzegun arratsaldean nahi duen guztiarentzako atea zabaltzeko izanen dira eta lehenik, 18:00etan *Desberdinak baina berdinak* eskainiko dute Ricardo Barojako ikasleek eta ondotik *Ura* Labiagakoek. Sarrera 2 euro ordaindu beharko da.

Maiatzaren 20an, ortziralean, 10:00etan, Jesusen Bihotza ikastetxeko LHko 5. mailako ikasleek *Indarkeria* antzezlanaren eskainiko dute eta 12:00etan *Sendaliburua* Haur Hezkuntzari zuzendutako antzezpena egingen dute. Sarrera euro 1 kobratuko dute. Ortziral arratsaldeko 6etan hasita, denentzako atea zabaltzeko izanen dira Kultur Etxean eta berriz ere *Indarkeria* taularatuko dute Jesusen Bihotzako ikasleek. Sarrera 2 euro kobratuko dute.



Ba al zenekien

Maiatzaren 31n bukatuko dela bestetako azal lehiaketara lanak aurkezteko epea



UTZITAKO ARGAZKIAK

Berreskuratutako azienda feria arrakastatsua suertatu da

Baserritarrak eta herritarrak kontent gelditu dira aurtien berreskuratutako azienda feria egunak emandakoarekin. Behiak, zaldiak eta behorrak, ahariak eta ardiak, ahuntzak, mandoak, zakurrak, baita idi-parea ere, uztarri eta guzti plaza-ratu zituzten apirilaren 30ean. Baserriko tresnak, erlezaintzako produktuak eta 14 baserriko sagardoak ikusteko eta dastatzeko aukera ere izan zen. Bazkaria ere animatua joan zen eta bazkalondoko solasaldia interesgarria izan zen. Heldu den urtean ere, segidan emateko intentzioa dute.




UTZITAKO ARGAZKIAK

Nafarroako Herriarteko pilota txapelketan hasiak dira

Herriarteko 47. pilota txapelketako lehen jardunaldia jokatu zen maiatzeko lehen asteburuan. Hamabi herri ari dira maila bakarrean, bi multzotan banatuak. Herriko taldeak maiatzaren 7an jokatu zuen lehen jardunaldia Iruñeko taldearen kontra eta lautik bi partida irabazi zituen (tartean, argazkian ageri den senior mailakoan, Beñat Mitxelenak eta Jon Olaizolak 22-17 irabazi zieten Maïans eta Iruritari). Halere, tanteoa Iruñeko alde izan zen. Bera eta Iruñearekin batera, Leitza, Esteribar, Zizur eta Ultzama daude multzoan eta bi lehenbizikoei lortuko dute ekainaren 18 eta 19an jokatu diren finalerdietarako txartela.


BILTEGIA 948 630 102
ANDER 687 736 929
Bidasoa, 76 - atea 21-22
31780 BERA


F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzaila
jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781


OKANE
HARATEGIA / URDAITEGIA
Enaut & Nekane
Kanttonberri 12 • BERA
Tfno/Fax: 948 630 018

LESAKA

KULTURA → MAIATZAREN 22AN

Argazki Rallya antolatu du Beti Gaztek lehen aldiz

Bilduma onenak 150 euroko saria izanen du

Aitor AROTZENA

Beti Gazteko argazki-lari taldeak lehen aldiz argazki rallya antolatu du maiatzaren 22an. Rallyaren hasieran jakitera emanen diren bortz gairen inguruko argazkiak aurkeztu beharko dira. Bilduma onenari 150 euro eta diplomako sari berezia emanen zaio eta gai bakoitzeko irabazleak 75 euro eta diploma izanen du. 16 urte artekoen argazki onenari ere saria emanen zaio.

Argazki digitalak Lesakako udal-barrutian egin beharko dira, JPG kalitate goreneko formatoan eta rallyaren hasieran txartela hutsik izan beharko dute argazkilariak. Maiatzaren 22an, igande goizeko 9etatik 10etara egin beharko da izen ematea Beti Gazten. 10 euro ordaindu beharko da izen ematerakoan, baina 16 urte baino guttiago dutenek doan parte hartzen ahal dute. Parte hartzaile bakoitzak, gehienez, 36 argazki entregatu ahal ditu. Rallyaren akaberan, 13:00etatik 14:00 arte argazkiak deskargatuko dira Beti Gazte elkartearen.

Lehiakide bakoitzak

gai bakoitzeko argazki bat hautatuko du eta maiatzaren 29a baino lehenago betigaztefoto@gmail.com helbidera bidali beharko ditu.

Epaimahaia profesionalenez eta antolakuntzaren kide batez osatuta egonen da eta epaia www.betigazte.net webgunean argitaratuko da, argazki onenak bezalaxe. Sari banaketa eta irabazleen argazki emanaldia Beti Gazte elkartearen eginen dira ekainaren 4an, 19:00etan.

Taupada lokala

Joan den urtean Kultur Etxea erabiltzeko zituen arazoak salatu eta bere bidea egin du herriko artistak eta artisauak biltzen dituen Bihotzkada Kolektiboak, Eltzeta karrikaren 18an Taupadak lokal berria egokituz. Maiatzaren 14an egin zuten irekiera besta eta margo erakusketa zabalik dute.

Balkoi loreduen lehiaketa

Lesakako Zerbitzuen Elkartek hirugarren urtez antolatu du Balkoi Loreduen lehiaketa. Ekainean eginen da eta ekainaren 23an jakina-

Ba al zenekien

Auzo konpostarako etxolak ez kentzea eskatuz 331 sinadura aurkeztu zituztela maiatzaren 9an Herriko Etxean



UTZITAKO ARGAZKIA

Liburutegia handitu dute Irain eskola publikoan

Irain Eskola Publikoko liburutegian haunditze lanak egin ondotik, apirilaren 18an inauguratu zuten, ikasleen aurreko eta irakurketa saio eta guzti. Lanak, udalaren laguntzarekin egin dira eta lehen irakasle gela zena liburutegiari gehitu zaio. Eskolako beharrei erantzunez, gune garrantzitsu bat bihurtu da, batez ere eskola ordutik kanpo aunitz erabiltzen den espazioa delako.



UTZITAKO ARGAZKIA

Sanferminetako kartel, azal eta gibleko azal irabazleak

Sanferminak iragarriko dituen kartela eta programako azala eta kontrazalean joanen diren irudiak aukeratu dituzte. Karteletan, aurkeztutako 7 lanen artean Teresa Rojo Larralderen *Kaskabiloa* izan da lehiaketako irabazlea eta portadarako, 9 lanen artean, Juan Carlos Pikabea margolariaren *Neska Mutilak* lana aukeratu dute. Bakoitzak, 250 euroko bonoa eskuratuko du saritzat. Kontrazal lehiaketa, iaz bezala, margolariaren alabak, Monica Pikabea Perinnek irabazi du, *Pepitto Kapitaina* lanarekin. Denera, herriko 6 eta 12 urte arteko neska-mutikoek 131 marrazki aurkeztu zituzten. Irabazleak, 100 euroko bonoa izanen du.

raziko dute emaitza. Erosketa bonoetan 200, 150 eta 100 euroko sariak izanen dira.

Hain luze, hain labur

Maiatzaren 28an, 20:00etan eskainiko dute *Hain luze, hain labur* dokumentala Harriandoan.



OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 5EAN

XXIV. Gasna eta artisau feria antolatu du Altxata elkarteak

Bezperan ere zenbait ekitaldi izanen dira aurten

Iruñe ELIZAGOIEN

Ekainaren 5ean antolatu du Altxatak Gasna eta Artisau Feriaren 24. edizioa. Aurten, igandeko ohikoez gain, bezperan ere zenbait ekitaldi prestatu dituzte, eskalada ikastaroa, kontzertua eta herriko dantzarien saioa.

LARUNBATA, EKAINAK 4

- 11:00-13:00: Eskalada ikastaroa haur eta helduentzat frontoi gibeluko paretan. Ttikienek paretarekin kontaktua eta altuera probatzeko aukera izanen dute eta handiei berriz eskalada nozio baskoak eta rappell teknikak irakatsiko zaizkie.
- 19:00: Juan Mari Beltran Hirukotea-ren kontzertua eta herriko dantzarien saioa.

IGANDEA, EKAINAK 5

- 10:30-14:00: Eskulan-gileen erakusketa eta salmenta.

- 10:00-11:30: Lehiaketarako Ardi Gasnen harrera.

- 11:00etatik aurrera: Alde batetik ardi mozte erakustaldia izanen da plazan. Bertzetik, Etxalarko III. Goxo Topaketa. Aurten txokolatea osagai nagusia duen postrea. Izena emateko azken eguna maiatzaren 29a, Tel.: 697397567.

- 12:30: Etxalarko Trikitilarien kontzertu saioa.
- 13:30: XXIV. Eskualdeko Ardi Gasna Lehiaketako sari banaketa.
- 14:00: Kantu bazkaria Bankako Menditarrek girotua. Lehiaketara aurkeztutako gasnak eta goxo topaketara aurkeztutako postreak dastatuko dira.

Bazkariko txartelak Elutsa eta Herriko Ostuan egonen dira salgai maiatzaren 29a arte (20 euro). Aurten berrikuntza bezala haurren menua ere eskainiko da (10 euro).

Erakusketak ere egonen dira. Eskola Zaharretan, egun osoan, Etxalarko eskulan ikastaroko lanak. Iriondoan, goizez, baserriko lan tresnak.



ARGAZKIA: ARANTXA DANBORIENA

Meaka auzoko bestak

Maiatzaren 1ean ospatu zen Meaka auzoko besta. 50 lagun inguru elkartu ziren Landaburuko bordan bazkaltzeko eta giro ederrean pasa zuten eguna.

MANKOMUNITATEAREN KANPAINA ETXALARREN

Hondakinen birziklapenean eredugarria bihurtu nahi dute

I. ELIZAGOIEN

Bortzirietako Hondakinen Mankomunitateak hondakinen bereizketa eta birziklapenaren inguruan esperientzia pilotua martxan jarri du herrian. Honen harira, hainbat ekimen garrantzitsu jarriko dira martxan. Maiatzaren 3an karakterizazioa egin zen plazan. Denen aitzinean, 4 zaborrontzi berde hustu eta hondakin mota ezberdinak bereizi ziren. Honez gain, konpostajeri bulkada sendoa ematea helburuen artean egonen da, (auzo konpostagune berria paratu dute Bekolandan), errefusa edukiontziei (berdeei) tapaxikiagoak paratuko zaizkie nahastutako hondakinen deskarga masiboa saihesteko eta ontzi eta paper-kartoi bilketak indartzeko edukiontzia hori eta urdin gehiago jarriko dira beharra dagoen tokietan. Neurriak ezarri eta hilabete batzuetara, Etxalarren sortzen diren hondakinak berriro aztertuko dira. Mankomunitateak espero dituen emaitzak lortzen badira, Etxalarko bizilagunak saritzeko aukera aztertzen ari dira, hau da, zaborretako erreziboa murriztea.

Ba al zenekien

Herriko Ostatuan Siriako errefuxiatuentzat janaria bildu zela. Bildutakoa Kioseko kanpalekura eraman zen zuzenean.

FLASH

Etxalarko kronika zaharrak liburua

Maiatzaren 27an, 19:30ean, Teodoro Arburuak 1911tik 1936ra bitartean idatzi eta Pello Apezetxeak bildutako hainbat testurekin osatutako liburuaren aurkezpena egingen du Pellok Kultur Etxean.

Jazz kontzertua

Maiatzaren 28an, 19:00etan Le petit baigneurs taldeak jazz kontzertua eskainiko du elizan.

Kooperatibako urteko batzarra

Apirilaren 30ean izan zen Usoa Kooperatibako urteko batzarra. Aitzineko urteko akta sinatu, urteko kontuak ikusi, pentsuaren salmentaz solastu eta junta berri zuten. Gero, afaria La Basquen.

K SAT
TELEKOMUNIKAZIOAK

ANDONI LASAGA APEZTEGUIA · T. 637 40 86 40 · 31780 BERA · andonimabako@gmail.com

- TDT instalazioak
- TB instalazioak (satelite, lurrekoak)
- Instalazio indibidualak eta kolektiboak
- Satellite bidezko interneta

Alberto RETEGI
abokatua
abokatua
© 948 630 763 · Altxata, 17 · BERA

ARANTZA

KULTURA → LEHENBIZIKO ALDIZ

Arantza rock jaialdia iragartzeko kartel lehiaketa antolatu du Gazte Asanbladak

Proposamenak ekainaren 3ra bitarte aurkez daitezke

Nerea ALTZURI

Oraindik frexko ditugu Arantza Rock jaialdiko 20. urtemugako oroitzenak. Berezia izan zen iazko abuztuan. Lehenbiziko edizioako taldeen kontzertuak eta egitarauaren barne egindako hainbat jarduerak urtemuga borobildu zuten. Eta hilabete batzuk pasatuta, berriz ere elkartu dira aitzinera egiteko gogo eta indarrak.

Arantza Rock jaialdiekin segitzeko erabakia hartu du Gazte Asanbladak eta lehengo kideez gain, lagun berriak batu dira taldera. Azken hilabete pasatxotik astero bildu ondotik, 21. Arantza Rock martxan da! Taldeak zehaztu dituzte: Katez (Leitza), Sorkun, Enkore eta Skasti. Gainera, aurren, estreinakoz, kartel lehiaketa antolatu dute eta ekainaren 3ra arte proposamenak aurkezten ahal dira, *arantzagazte.asanblada@gmail.com*-era bidaliz.

Ba al zenekien

Haur garapenari buruzko Bortzirietako 10. jardunaldien barne, bortz herrietan ibiliko den erakusketa bat prestatu dutela? Arantzara ekainaren 1ean ekarriko dute eta egun osoan eskolan egonen da ikusgai.

OINARRIAK

Gaia Arantza Rock 2016 da. Edozeinek har dezake parte eta parte-hartzaile bakoitzak lan bakarra aurkeztu dezake. Lanak orain arte argitaratu gabea izan behar du. A3 formatuan izan behar du eta testu hau agertu behar da kartelean:

-Arantza Rock 2016 (logoarekin).
-Abuztuak 20.
-Katez, Sorkun, Enkore, Skasti.
-22:00etatik aitzinera.
-Sarrera debalde.
-Ilunabarrean elektrotxaranga.
-Arrats guzian zehar bokatak egonen dira.

Gazte Asanbladak erabakiko du kartel saria eta egileak 200 euroko saria eramanen du.

Ea norena den aurtengo Arantza Rock jaialdia iragartzeko kartela!

Zakurren errabiaren kontrako txertoa

Albaitaria zakurrei errabiaren kontrako txertoa ematera etorriko da maiatzaren 30ean. 16:00-etatik 18:00-etara Gorapean egonen da.



UTZITAKO ARGAZKIA

Dani Iparragirre bigarren

Joan den maiatzaren lehenean, kontrabandisten lasterketa egin zen Urdazubin eta Dani Iparragirre lasterkaria podiumean bigarren gelditu zen, txapeldunarengandik minutu batera ailegatuz. Imanol Lukanbiok (6) eta Xabier Iturriak (16) ere hagitx postu onak lortu zituzten. Berako Maratoi Erdian ere emaitza ederrak lortu zituzten hirukote honek eta Asier Apezetxeak. Hori da hori sasoi! Asteburuan izandako mendiaren inguruko jardueren kontakizuna hurrengo alean eginen dugu.

ELKARTASUN MERKATUA ATARRABIAN

Andrei berriz ere gure artean izanen dugu

Laugarren urtez, Andrei mutikoa, dagoeneko gure euskalkia ederki menperatzen duen errusiarra, herrian izanen dugu udan, ekainaren 19tik irailaren 2ra. Atarrabia Elkartasuna elkarte Nafarroako 12 familiek osatzen dute, tartean da Koldobike herriararen familia ere, eta elkarte horren bidez etortzen da Andrei. Errusiako Bryansk (Chernobiletik hurbil den lurraldea) eta Nizhnevartovsk (Siberia) herrietatik etortzen dira haurrak. Egoera larrian dauden familietatik eta harrera etxeetatik etortzen diren haur hauek udan eta Eguberrietan egoten dira harrera familietan, gure artean. Hemen diren denboraldian osasunean hobetzen dute, klima



Andrei herrian hagitx maitatua da.

bortizetatik atseden hartzen dute... Elkartearen familia berriak sartzeko eta maiatzaren 29an Atarrabian egiten den elkartasun merkatura hurbiltzeko gonbidapena egin dute Atarrabia Elkartasuna elkartetik. Informazio gehiago www.villavasolidario.com-en.

aterpe
albergea jatetxea ostatua
T. 948 634 179
ARANTZA
www.arantza.net

“TELLETXEA”
Lorazaintza
- Lorategiak diseinatzea eta sortzea -
- Mantentze lanak -
- Ureztatze sistema automatikoak -
- Kimaketak -
John Telletxea Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa
LESAKA • T. 619 418 683 • johntelletxea@hotmail.com
www.telletxealorezaintza.com

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 20, 21 ETA 22AN

Udaberriko bestak bete-beterik heldu dira

Igandeko merkatu egunean bigarren eskuko puskak eta bertzelakoak erosteko aukera izanen da

TTIPI-TTAPA

Dagoeneko prest du Igantziko Euskara Batzordeak aurtengo Udaberriko Bestetako programazioa. Egitaraua inoiz baino beteagoa heldu da eta ez da aspertzeko aukerarik izanen.

MAIATZAK 20, ORTZIRALA

Asteburuari hasiera emateko, Jon Abrilek zuzendutako *Neskatoak* dokumentalaren

emanaldia izanen da, 19:00etan, Eskolzarren.

Beranduago, 23:30-ean, AZ/DZ taldearen emanaldia izanen da, La Villa ostatuan. Talde honek AC/DC talde australiar mitikoaren bertsioak egiten ditu.

MAIATZAK 21, LARUNBATA

Goizetik hasiko dira ekitaldiak, gaita ikasleak ibiliko baitira karrika buelta emanez 10:00etatik aitzinera.

Tenore berean, goizeko 10:00etan, eskolako Haur Hezkuntzako ikasleek Juan Carlos Pikabea margolari lesakarekin landu duten proiektua aurkeztuko dute. Pikabea bera bertan izanen da, eta 12:00ak bitarte ikasleek egindako lanak ikusi ahal izanen dira. Erakusketa irekia egonen da hurrengo egunean ere, 10:00etatik eguer-



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Nafarroako neguko suteen datuak herrian eman dituzte

Nafarroan, azken hamarkadan sute eta erretako azalera gutxien izan duen negua izan da 2016koa, Nafarroako Gobernuak urtarrila eta apirila artean baso-suteen inguruan egindako kanpainaren balantzearen arabera. Igantziko Herriko Etxean egin zuten balantzea eta aurtengo kanpainaren aurkezpena maiatzaren 6an. M^a Jose Beaumont eta Isabel Elizalde kontseilariak eskaini zuten prentsaurrekoa. Haiekin batera izan ziren Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko zuzendari nagusia; Igantziko alkatea, Lourdes Ibarluzea; Arantzako alkatea, Juan Miguel Almandoz; Goizuetako alkatea, Unai Loiarte; Lesakako alkatea, Jose Luis Etxegarai; eta Baztan eta Donostiako udal-ordezkariek.

diko 12:00ak arte. Segidan, herriko dantzariak saioa eskainiko dute, hori ere herrian barrena.

Arratsaldeko 6etan, Baratzondon, eskolako ikasleek antzerki emanaldia eskainiko dute. Urtero bezala, azken hilabeteotan eskolan antzerkia lantzen aritu dira, emozio hezkuntzako programaren barrenean, eta horren emaitza eskainiko dute, *Argitxuri herria* izeneko antzezlanarekin.

Ondotik, 19:30ean,

triki-pintxo poteoa izanen da, Biltokitik hasita.

MAIATZAK 22, IGANDEA

Goizean 11:00etan hasi eta 18:00ak arte merkatua izanen da frontoian. Bertan aukera izanen da bigarren eskuko puskak erosteko (liburuak, CDak, DVDak, jostailuak, apaingarriak, bitxiak...), baita sendabelarrak, postreak, baratzeko puskak, arraultzeak eta abar luze bat ere.

Aitzineko asteetan

antolatzaileak etxetzex ibili dira merkatu-rako puskak eskatzen, eta dagoeneko ari dira guztia antolatzen, merkatuaren bosgarren edizio honetarako. Aurten bilduko den dirua bi proiektutarako erabiliko da: auzoetako erro-tulazioa akautzeko eta eskolako emozio hezkuntzaren programarako.

Arratsaldean La Villa atarian DJ Barglash ari-tuko da, 15:30etik aitzinera eta 17:30etik aitzinera opilak izanen dira.

XAGU
LIBURUDENDA
Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBtik EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
KOLTZOIAK - ETXETRESNAK

BORTZIRI
UNSION ANAIK

Erakusketa: **Bereau Etxea** LESAKA Nafarroa
T. 948637266 M. 607226891
bortzirialtzari@telefonica.net

zalaín
JATETXEA RESTAURANTE

Zalaín Auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalaín.info

BORTZIRIAK

GIZARTEA → MAIATZAREN 21EAN BERA KO KULTUR ETXEAN

Ikasketetan arazoak hizpide X. haur garapen jardunaldietan

Herriz herri ibiliko den erakusketa ere larunbatean irekiko da

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako haur garapen jardunaldien hamargarren edizioa egingen dute maiatzaren 21ean Berako Kultur Etxean. Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Man-komunitateak, Lesakako Osasun Zentroak eta Guztioak taldeak, La Cai-xaren Gizarte Ekintza-ren laguntzaz antolatutako jardunaldiak *Ikasketetan arazoak: 10 urte elkarrekin* goiburupen egingen dira.

Egitarruari dagokionez, 09:00etatik 10:00etara inguruko errekurtsuen eta mar-txan dauden errepaso egingen dute pedia-trak, Guztioak, Anfas, Aspace eta Gizarte zerbitzuko kideek. 10:00eta-



ARGAZKIA: GURUTZE PIKABEA

Etxalarren bizi den Nuria Canoren *Luchando son Simone* liburua aurkeztuko dute jardunaldietan.

tik 11:30era hizkuntz trastorno espezifikoei buruz ariko da TEL el-karteko ordezkari bat. 11:30etik 12:30era ha-maiketako eskainiko dute erakusketa gelan. Horretaz gain, Nuria Ca-noren *Luchando con Si-mone* liburuaren aur-kezpena eta erakuske-taren inaugurazioa egi-nen dituzte.

12:30etik 14:00eta-ra Dislegui elkarteak dis-lexia eta ikasketa pro-zesuan egon litezkeen

arazoak izanen ditu hizpide.

Goiz osoan, integra-zioa lantzeko haur jo-koak ere izanen dira tti-kientzat eskainiko den ludotekan. Ondotik, Zu-biondo jatetxera joanen dira.

Parte hartzea doa-koa da, baina aitzinetik izen eman behar da Bortzirietako Osasun zentroan, mediku kon-tsultetan edo guztiok-bortziria@gmail.com era idatziaz.

ERAKUSKETA HERRIZ HERRI

Hizkuntzaren trastor-noei eta dislexiari bu-ruzko 9 panel, lehendik egindako jardunaldiei buruzko 9 panel eta Be-rako familia batek, he-rritarrekin eta Pirritx eta Porrotx pailazoekin egindako bideo bat di-tuen erakusketa maiat-zaren 21ean berean inauguratuko da Beran. Maiatzaren 25era bitar-te egonen da Berako Kultur Etxean, arratsal-deko 5etatik 7etara. Goizez ere, ikastetxeek hala eskatzen badute, irekiko da. Erakusketa Lesakako Kultur Etxe-an izanen da maiatza-ren 26 eta 27an 17:00-etatik 19:00etara eta maiatzaren 28 eta 29an, larunbat eta igandea 11:00etatik 13:00etara. Ekainaren 1ean Aran-tzako eskolara eraman-nen dute egun osoan eta ekainaren 3an Etxa-larko Kultur Etxera, 09:00etatik 17:00etara.

IDENTIFIKAZIOA ERE

Zakurren errabiaren kontrako txerto kanpaina

TTIPI-TTAPA

Zakurren identifika-zio eta errabiaren kon-trako txerto kanpaina maiatzaren 30etik ekainaren 9ra egingen dute Bortzirietan. Go-goratu behar dalau hi-labetetik goitiko zakur guziei errabiaren kon-trako txertoa eta iden-tifikazio-mikrotxipa paratu behar zaiela eta bi urtero txertoa ber-ritu behar zaiela.

Maiatzaren 30ean, astelehenean 16:00-etatik 18:00etara Aran-tzako udaletxeko ar-kupetan izanen da al-baitaria.

Maiatzaren 31n, as-teartean 16:00etatik 18:00etara Igantziko aparkalekuan.

Ekainaren 1 eta 2an, asteazken eta ortze-guna, 16:00etatik 19:00etara Lesakako suhiltzaileen aparka-lekuan izanen da.

Ekainaren 6 eta 7an, astelehen eta astear-tea, 16:00etatik 19:00-etara Berako Elektro-bian izanen da (Kultur Etxeko aparkalekuan).

Ekainaren 8an, aste-azkena, 16:00etatik 20:00etara Etxalarko Mataderoan izanen da.

Ekainaren 9an, ortze-guna, 16:00etatik 17:30era Alkaiagan eta 18:00etatik 19:00eta-ra Zalain-Zokon iza-nen da.


Txertoaren prezioa 20 eurokoa da, iden-tifikazioarena bakarrik 30 euro, identifikazio eta txertoarena 40eu-ro eta jabe aldaketa-rengatik 10 euro ordaindu beharko da.



ARGAZKIA: R. ENETERREAGA

Bortzirietako Abesbatzen I. Topaketa

Giltzarri Abesbatzaren 20. urteurrenaren harira, Bortzirietako Abesbatzen I. Topaketa egin zuten hi-laren 7an Lesakan. Giltzarriekin batera, Ainhoako Atsulai eta Avilako Arenas de San Pedroko Voces de Gredos abesbatzak aritu ziren kantari.



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Emusik jaialdia Beran eta Lesakan

Atzerriko hainbat musika eskolekin batera parte hartu dute Berako Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskolak eta Lesakako Musika Eskolak Emusik 2016 jaialdian. Alemania, Herbehereak, Austia eta Va-lentziako musikariak izan ziren bi herrietan.

GIZARTEA → MAIATZAREN 7AN

Iñaki Gallo zenari agur eta ohore Udaletxean

Garbitegia berritu zuen herritarrekin batera

Maider PETRIRENA

Azken urteetan herrian bizitu den Iruñeko Iñaki Galloren agur zibila egin zen Udaletxe-ko goiko solairuan maiatzaren 7an. Bertara familiakoak, zenbait sunbildar eta hurbilekoak elkartu ziren agur polit bat emateko.

Familiakoek bere bizimoduari buruzko idatzitako irakurri zuten eta ondoren bere argazkiekin bideo polit bat ere egin zuten. Sunbillako garbitegia hainbat herritarren artean berritu zuten eta beraien artean Iñaki zegoen. Argazki guzti horiekin bideo po-

lit bat egin zuen herriko albintek eta bertan erakutsi zuten. Ondoren familiak Iñakik hala idatzita utzita hiru opari eder eskaini zizkion herriari. Amets Inda alkatea eta Juanjo Ibarra albintea izan ziren opariak hartu zituztenak. Alkateak herriaren izenean esker-rrak eman zizkien senideei. Ekitaldia herriko txistulariek *Agur Jaunak* kantarekin ireki zuten. Herriko abesbatzak ekitaldia akitzeko zenbait abesti kantatu zituen: *Txoria txori*, *Xarman-garria zira* eta *Maitia nun zira*. Ekitaldiari bukaera emateko Iñaki Muruak eta Olaizolak *Agur Jaunak* gitarra eta filarnonikarekin jo zuten. Iñakiri aunitz gustatuko zitzaion bezala, luntx eder batekin akitu zen guztia.

ARGAZKIAK: MAIDER PETRIRENA
Iñaki Galloren familiakoak, Amets Inda alkatea eta Juanjo Ibarra albintearekin, udaletxean egindako ekitaldian.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Herriko artistak Haur eta Gaztetxoek kantu jaialdian

Haur eta Gaztetxoek kantu jaialdian parte hartu zuten sunbildarrek apirilaren 30ean Tafallan. Batetik LH 4, 5 eta 6. mailako Xuban Zelaieta, Oihan Lujanbio, Enaitz Portu, Iradi-Maialen Arretxea, Egoi Irigoien, Helene Rekarte, Eneit Bertiz, Markel Agesta eta Ane Etxalar; bertetik Mendaur Trikitixa-pandero eskolarekin Eneritz Iturralde, Maialen Aiesa, Iraide-Garaine Iriarte eta Ibai Petrirena.

Ba al zenekien

Patxi Petrirena sunbildarra apirilaren 29an Eus-kaltzain urgazle izendatu dutela. Zorionak!



ARGAZKIA: JAIONE OTXANDORENA

Ameriketako artzain ibilitakoen besta

Artzai Amerikarrak beraien besta ospatu zuten maiatzaren 1ean. 1987an hasi ziren besta hau ospatzen eta aurtengo 30. aldian zen elkarrekin bazkari eder honetaz gozatzeko aukera izan zutela. Guztira 24 pertsona elkartu ziren, meza aditu, pintxoak eta highballa hartu eta Ariztigainen bazkaldu eta ogia egitera.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Herbereetako Muzt taldearen antzerki musikatua

Herbereetako Muzt gazte taldeak (15-17 urte artekoak), Ariztigain kanpinean Mary Poppinns-en antzerki musikatua eskaini zuten maiatzaren 5ean. Ikuskizuna ederra izan zen.

DONEZTEBE

GIZARTEA → LEHEN ALDIZ EGIN DA

Leire Etxeberria Sampedrok irabazi du bestetako kartel lehiaketa

Altzaferoa nork
botako duen
herritarrek
erabakiko dute

Marga ERDOZAIN

Ekainaren 28tik uzta-
ilaren 2ra burutuko di-
ren San Pedro bestak
kartel dotore hau iza-
nen dute iragartzeko
Iraizozko Leire Etxebe-
rriak eskuratu du oho-
re hau eta 150 euroko
diru-saria. Aipatu behar
da Udalak kartel lehia-
keta antolatuta duen le-
hendabiziko aldia dela
eta hagitx balorazio ona
egin duela. Bortz lan
aurkeztu dira eta maila
handiko lanak izan dira
(bestetako aldizkarian
herritarrek kartel guzti-
ak ikusteko aukera iza-
nen dute).

ALTXAFEROA

Aurtengo San Pedro-
tako besten hasiera
piztuko duen herritarra
edo taldea doneztebe-
rrek aukeratu dute.
Maiatzaren 27ra bitarte
proposamenak egin dai-
tezke. Nork egin deza-
ke proposamena?: Do-
nezteben erroldatua
egon eta 16 urte baino
gehiago duenak. Hau-
tagaia aurkezterakoan
pertsona edo taldearen

merituak azaldu behar
dira, garbi adieraziz he-
rriarekin lotura dutela.
Proposamenak uda-
letxean utzi edo *alkate-
tza@doneztebe.eus* hel-
bidera igorri behar dira
izen-abizenak eta NAN
zenbakia gehituz.

Askin haur eskolako matrikula epea zabalik

2016-17 ikasturtera-
ko behin betiko matri-
kula epea zabaldu du
Doneztebeko udalak.
Askin haur eskolan hel-
du den ikasturtean ize-
na eman nahi duten fa-
miliek pasa den otsai-
lean aurrematrikula egin
zuten. Onartutako behin-
behinek zerrendak
kaleratuta, behin-beti-
ko matrikula egiteko
epea zabalduko da ma-
iatzaren 20tik 30era.
Ekainetik aitzinera eta,
plazak libre gelditzen
badira, aukera izanen
da horiek betetzeko.

Donezteben ere Errigora kanpainarekin bat eginda

Maiatzaren 24ra bi-
tarte Nafar hegoaldeko
uzta eskutik eskura ja-
so nahi duenak aukera
ona du. Piperrak, zain-

zuriak, orburuak, toma-
te frijitua... Nafarroako
produktuak, kalitate
handikoak, bitartekari-
rik gabe eskuratzeko au-
kera dago. Gogoratu
behar da Errigora eki-
menak bertako ekoizle-
en lana bultzatzen due-
la eta, aldi berean, he-
goaldean euskararen
inguruko ekimenetara-
ko etekinen zati bat bi-
deratzen duela. Intere-
satuek 620 275 572 te-
lefonora deitzen ahal
dute (Oier Zulaika).

Malerrekako Egunerako gonbita

Maiatzaren 28an Itu-
renen ospatuko den Ma-
lerrekako Egunerako gon-
bita ere badugu do-
neztebarrok. Aipatu be-
har da gure dantzari,
musikari, abesbatzako
kideak... parte hartuko
dutela bailarako besta
honetan. Programaren
zehaztapenak ale ho-



ARGAZKIAK: MAIDER PETRIRENA

Iraizozko Leire Etxeberria Sampedrok egindako kartel
honek irabazi du 150 euroko saria.

netan daudenez, gon-
bidapena luzatzea ber-
terik ez da gelditzen.

Nafarroako aurreseleakzioan

Jubenil mailako Na-
farroako eskubalo
aurreseleakzioaren deial-
dian sartu dute Oier Be-
rasategi Errekako joka-
laria, hilabete honetan
zenbait lan-saio
egiteko.

Ba al zenekien

Guztiok dakigu Doneztebe Futbol taldeak zer
lorpen polita eskuratu duen (kiroletan zehazta-
penak), baina ba al zenekien lorpen honen atze-
an zenbat ilusio, zenbateko harrobi lana, zen-
bat kamiseta zikindu eta garbitu, zenbat en-
trenamendu, zenbat bidaia... dagoen. Zorio-
nak, Doneztebe futbol talde osoari. Zorionak
jarraitzaile, ama, aita, entrenatzaile eta zorio-
nak jokalariei!

AGENDA

Nikomen maitea kontzertua

Maiatzaren 22an, igan-
de arratsaldeko 7etan
elizan Mendi abesba-
tzak *Nikomen Maitea*
kontzertua eskainiko
du. Atarrabiako lehia-
ketan aurkeztutako la-
na Malerrekan dasta-
tzeko aukera izanen
da.

Agorretakoak Sunbillan

Maiatzaren 30ean, as-
telehena, Agorreta mu-
sika eskolako ikasleek
Sunbillako elizan kon-
zertua eskainiko du-
te.

Askin haur eskolako hitzaldia

Maiatzaren 31n, arra-
tsaldeko 5etan, Askin
haur eskolako lan tal-
deak aurtengo hiruga-
rren hitzaldia antolatuta
du: *Mugimendu libre*a
gaitzat hartuta.

Bidasoa
GASOLINDEGIA

A, B eta C
motako
GASOLIOA
ETXERA
24
ORDUZ

Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA • T. 609 446 693

BORDALARRIA

Gure Haragia
Nuestro Carne

Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
Tel. 943 467 244 943 467 444 • Fax. 943 473 726 • carnessein@bordako.com

DONEZTEBE



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Nafarroako bigarren mailako arpana txapelketa irabazia dute Daniel Saldias eta Xabier Urrutia arraioztarrek.

KIROLA → MAIATZAREN 21EAN

Herri kirola eta crossfita aurrez aurre izanen dira apustu berezian

3.000 euro
jokoan izanen
dituzte

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 21ean, larunbat arratsaldeko 6etan Bear Zana plazan 3.000 euroko apustu

edo norgehiagoka berezia ospatuko da, Baztan-Bidasoako Gure Kirolen Klubak, Doneztebeko Udalak eta Crossfit Runa taldeak antolatuta.

Herri kirol taldea (Xabier Urrutia eta Daniel Saldias arraioztarrek



UTZITAKO ARGAZKIA

Malerrekako IX. ahari lehiaketa Doneztebeko Udaberriko Ferian

Doneztebeko Udaberriko feria hamargarren aldiz ospatu zen maiatzaren 6an. 15 ahari aurkeztu ziren lehiaketara. Lehiaketa ahari mutur gorri eta mutur beltzendako irekia bada ere, zenbait edizioetan gorriak bakarrik agertu dira. Aurtan, berriaz, 4 ahari muturbeltz eder aurkeztu ziren. Horien artean, Donamariko Zabalteneko Joxe Mari Indak aurkeztutako hiruek osatu dituzte podiumeko hiru koxkak, 10, 70 eta 50 euroko sariak eskuratuz. Laugarren, Urrozko Eustasio Mariezkurrenaren burua izan da. Mutur gorrien atalean, 11 buru aurkeztu dira eta diru-kopuru bera izan dute saritzat hiru lehenbizikoei. Lehenbiziko saria Donamariko Porotxeneko Jose Miguel Lasagak aurkeztutako ahariarentzat izan da, bigarrena Oizko Telleneko Lucio Telletxearentzat eta hirugarrena Doneztebeko Koro Antxorenarentzat. Xanti Uterga alkateak, Alfredo Basterrak eta Patxiku Mitxelenak osatu dute epaimahaia eta Leire Ortuoste zinegotziak ere parte hartu zuen sari banaketan. Baina dena ez zen ahari lehiaketa izan eta, eguraldia lagun, azienda feria polita gelditu zen, Martin anaiek eta Mikel Mendiburuk aurkeztutako behi eta aretxeekin. Gainera, Bordatxo aldeko aparkalekuan bildu ziren dozena bat eskulangile eta Doneztebarrak elkarteko merkatariek ere beraien produktuak atera zituzten.

osatu) Crossfit Runa bikotearen aurka (Juan Carlos Lesaca eta Alex Fernandez) lehiatuko da. Sari preziatu hori eskuratzeko honako ari-

keta hauetan indarrak neurtuko dituzte: 80 kilotako harri esferikoarekin 50 altxaldi, 200 kiloko ingudearekin 10 joan-etorri plazan, 70 ki-

loko bitxingekin (farmer Carri) 10 joan-etorri plazan, 40 kiloko 50 Thruster eta 20 trontza ebaketa. Sarrera 10 eurokoa izanen da.



1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea



edredoi fundak • albormozak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kuxinak • toaillak
Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

ITUREN

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 28AN

Malerrekako Eguna herrian ospatuko da aurtengoan

85 urte baino gehiagoko herritarrak eta joaldunak omenduko dituzte eta Urrozek hartuko du lekukoa

Arkaitz MINDEGIA

Hilabetetako lanaren ondotik, ekitaldi saila prest dute Iturenen Malerrekako Eguna behar den bezala ospatzeko. Maiatzaren 28an, Malerrekako Mankomunitatearen parte diren 13 udalerriek bat egingen dute bosgarren urtez egingen den besta egun handian; Beintza-Labai-

en, Bertizarana, Donamaria, Doneztebe, Elgorriaga, Eratsun, Ezkurra, Ituren, Oiz, Saldias, Sunbilla, Urroz eta Zubietako herritarrak elkartuz.

Larunbatean, 08:00-etan abiatuta Urroztik Iturenenera mendi martxa egitekoak dira, Malerrekako Gazte Asanbladak antolatuta. 10:00-etan harrera ekitaldia egingen da plazan eta herrietako ordezkariak hasiera emanen diote egunari. Malerrekako Eguna antolatzen duen Udalak eskaintzen duen omenaldia ere orduan egingen da eta 85 urte baino gehiagoko herritarrek eta joaldun zaharrek jasoko dute mezeritako omenaldia, aurreratu eta guzti. Besta



ARGAZKIA: M. PETRIRENA

Haur Kantari Jaialdian Mendaur trikitixa eskolakoak

Mendaur Triki pandero eskolako bi taldek parte hartu zuten Nafarroako haur jaialdiko Tafallako azken saioan. Ttikiek (Ituren, Legasa, Sunbilla, Arizkun, Elizondoko haurrek) *Polonesa* abestu zuten, erraldoi tikiak lagun zituztela eta haundienek (Ituren, Arizkun, Legasa, Saldias eta Elizondoko haurrak) *Arbola gainian* herrikoia kantatu zuten.

giroa zabaltzeko Malerrekako musikariak herrian barna ibiliko dira eta 10:30etik 14:00etara artisauek talogileen postuak ere egonen dira plazan. Dantzarien eta abesbatzako kideen emanaldia 10:30 aldera hasiko da plazan eta 12:30ean buru-haundiak aterako dira. Ordu berean, joaldunek itzulua egingen dute herrian eta 13:00etan *Malerreka leihotik begira* lehiaketako lanen irakurketa eta sari banaketa hasiko da. 14:00etan paella jatea antolatu dute frontoian eta bazka-

londoan kanturako aurrera ez da faltako Malerrekako Kantuzek gidatuta. 16:00etan musikoen saioa hasiko da plazan eta Malerrekako mus txapelketako finala Tresanea ostatuan. 17:00etan umeendako jokoak eta txokolatada plazan, buru-haundien kalejira eta ondotik aizkora apustua izanen da frontoian. Ilunabarrean

musikariek ere ez da faltako plazan eta 20:00etan zozketa eta mus txapelketaren sari banaketa egingen dituzte.

Ondotik, ekitaldi ofiziala akitzeko, Urrozkoko herriari lekukoa pasatuko zaio. 21:00etan herri afaria egingen da Herriko Ostatuan eta gauerditik aurrera Triki-dantz taldea ariko da plazan.



Ba al zenekien

Maiatzaren 22an ospatuko dela Trinitate Eguna. Mendaurko baselizako meza, enbalseta-ko bazkariak eta Iturengo plazako dantzaldiak izanen dira egitarauan.

JAUTSIERA KANPORAKETA GALDU ZUEN MAIATZAREN 6AN

Bigarren mailan ariko da aurten Ander Erasun aizkolaria

Lezaungo Juanjo Lopezek mendean hartu zuen kanporaketan

TTIPI-TTAPA

Aurtengo Euskadiko aizkolarien mailen osaketa finkatzeko falta zen jautsiera kanporaketa maiatzaren 6an jokatu zen Antsoainen. Bertan erabaki zen 2016 urtean, lehen mailatik bigarren mailara

Lezaungo Juan Jose Lopez Azpilikueta edo Aurtizko Ander Erasun San Sebastian jautsiko ote zen.

Aizkolari bakoitzak sei pego-enbor moztu behar izan zituen: bi kanaerdiko (54 ontzakoak), bi 60 ontzako eta bi oinbiko (72 ontzakoak). Juan Jose Lopez nagusitu zen 22 minutu eta 27 segundotan. Ander Erasunek 23 minutu eta 28 segundo behar izan ditu en lanak bukatzeko. Horren

ondorioz, Ander Erasunek lehen maila galdu eta aurten Euskadiko bigarren mailan aritu beharko du lehian. Maila berean ariko dira Aitor Senosiain, Oihan Larretxea, Julen Kañamarek eta Mieltxo Mindegia nafarrak; Gipuzkoako Unai Otaño, Jesus Mari Mujika, Luis Txapartegi, Aratz Murgertza, Xabier Zaldua, Eneko Otaño, Xabier Orbegoza eta Julen Alberdi eta Arabako Arkaitz Jauregi.



BASABURU TTIKIA

GIZARTEA → LABAIEN ETA SALDIASEN

Pagoeta parajearen beldurrak

Harrobia egin nahi dutelako hotsak hedatu dira, eta bilera egin dute Beintzan

Markel LIZASOAIN

Kezkatan daude Labaien eta Saldiasen, Pagoetan harrobi bat egiteko asmoak agertu direlako. Hala, benpen, herritarrek bilera egin zuten Beintzako Herriko Etxean (maiatzaren 9an), kontuak nola di-

ren eta zer egin daitekeen jakiteko. Herriko plazan auto sail handia, eta bilerako aretoa 70 lagunetik goiti aisa bildu izanen ziren, gehienak beintza-labaiendarrak eta saldiastarrak. Horrek bakarrik erakusten du zer-nolako beldurrak piztu diren; izan ere, bi herrietatik franko hurbilean gelditzen da eremu hori. Sustrai Eraikuntza izeneko talde ekologistako bi lagun ere etorri ziren bertze paraje batzuetan zer gertatzen ari den jakinarazteko eta aholkuak



ARGAZKIA: MARKEL LIZASOAIN

Pagoetako lepoa Amesako barrutitik.

emateko. Han mintzatu zirenek harrobiak mesede gutxi eta kalte franko ekarriko lituzkeela erran zuten, eta prest agertu ziren sinadurak biltzeko. Labaiengo zinegotzi batek erran zenez, promotoreak berak gibelera egina du, sumatu baitu herritarrek deskonforme direla eta

ez duela okasiorik nahi. Nolanahi dela ere, jendea ez zen lasai gelditu eta esku idatzitakotan edo ze edo zertan ikusi nahi dute proiektua gibelera gelditzen dela. Saldiasko Udaleko bi ordezkari ere hor ziren, eta esan dute herrian ere bestze bilera bat izanen dela jendea

jakinaren gainean paratzeko. Herritarrek eskatu zieten udal ordezkari postura garbia agertzeko Nafarroako Gobernuari proiektuaren kontra daudela. Kontu hauek mantso joaten direla adierazi zuten Sustraiok eta ikusiz-ikusiz egin behar direla gauzak.

ZUBIETA

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 29AN

Txokorik politena eta gazta onena aukeratuko dira Bestaberri egunean

Fermin ETXEKOLONEA

Azken urteetan bezala, herriko txoko politenaren lehiaketa eta gazta lehiaketa egingo dituzte maiatzeko azken igandean, goizez. Arratsaldean meza izanen da eta jende nahikoa biltzen bada, prozesioa ere bai. Gero, berendua gazta lehiaketara aurkeztutakoekin eta mu-

sika herriko musikariekin.

Lehen laguntza hitzaldia

Maiatzaren 20an, ostiral arratsaldeko 5etan hasita, Lehen laguntzako hitzaldi bat emango dute ludotekan, helduentzat. Gehieneko kopurua, 20 lagunena izango da.

Zubietarrak Udaberriko Ferian

Donezteben ospatu zen Udaberriko Ferian zubietarren parte hartze handia izan zen. Artisaunen artean, Andrew Smith (postalak), Joxepa Loiarteren taldea taloekin; Xanti Hualde eta Migel Arregi egur-laneekin; Maria Salanueva xa-



UTZITAKO ARGAZKIA

'Zaindari ikusezina' filmarako grabaketak egiten ari dira. Zubietan bizi den Luis Mari Esartek garai bateko ibilgailuak (moto eta furgoneta zaharrak) eta gaur egungoak ere utzi ditu, argazkian ageri denez.

boiekin eta Fausti Juanikorena arroparekin. Ahari lehiaketara ere Mikel Mendiburuk eraman zuen buru bat eta Patxi-k Mitxelena epaima haikide izan zen.

Errigora

Errigora produktuen barazki-lotea maiatzaren 24ra arte eskatzen ahal da ostatuko zerrendan eta bestela Maxi Gerekari deituz.

BEINTZA-LABAIEN

BERTIZ

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 7AN

Ittur-Ondo elkarteko urteko besta giro ederrean ospatu dute

Malerreka kantuz egun berean herrian suertatu zenez, goizetik mugimendua somatu zen

Arantxa ITURRALDE

Beintza-Labaienek, maiatzaren 7an ospatu zuten Ittur-ondo elkarteko urteroko besta. Gainera, aurten, jai egun honekin bat egin zuen herrian Malerreka kantuz egunak. Eguerdi aldera, aizkora lehiaren aurretik, herrian zehar aritu ziren euskal kantutak umore ederrean abesten. Goizean goizetik herria girotzeko modu polita izan zen hau.

Eguerdian ohiturari eutsiz, aizkolarien txanda izan zen. Ordubatak aldera ekin zioten egin beharreko lanari. Hiru bikotek parte hartu zuten, tartean bost herriarrek (Jesús, Miguel Angel, Jazinto, Jon eta Pellok) eta taldea osatzeko, seigarren aizkolaria, Arostegiko Cañameres izan zen.

Bestari dagokion bezalako jarraipena emateko, bazkideak bazkari legea egiteko bildu ziren. Bazkalondoa mus txapelketa antolatu zen eta hala eman zioten amaiera ospakizunari. Musean hordago gora eta behera gustura ibili omen ziren eta inorako presarik gabe, ilunabar arte aritu omen ziren jokoan.



ARGAZKIA: ARANTXA ITURRALDE

Alemaniko musikarien esker oneko kontzertua Beintzan

Donostia 2016, Europako kultur hiriburua ospatzen den urte honetan, Alemaniako Pirna hiriko musika eskolatik hainbat ekitaldietan parte hartzera heldu dira Donostiara. Egun hauetan, musikariak herri desberdinetara bideratu dituzte haien atsedenaldirako. Hala nola, Alemaniko Pirnako gazte musikari hauek Beintzako ostatuan igaro dituzte egun hauek. Hauen esker ona adierazteko modurik onena, beraiek hoberen egiten dakitenarekin adierazi dute, musikarekin. Hau dela eta, Beintzako frontoian maiatzaren 7an kontzertutxo bat eskeini zuten eta hainbat jende bertaratu zen.

NATUR PARKEA

80.000 bisitari baino gehiago izan zituen iaz Natur Parkeak

TTIPI-TTAPA

80.056 pertsonek bisitatu zuten 2015. urtean Bertizko Jaurerriko Natur Parkea, maiatzaren 10ean parkeko patronatuak egindako bileran jakinarazi zuten. Isabel Elizalde, Nafarroako Gobernu Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio kontseilariak parte hartu zuen bilera horretan.

Bisitari kopuru horretatik %30 Nafarroatik bertatik hurbildutakoa zen, %60 estatuko bertze komunitateetatik etorria eta gainerakoak atzerriarrek. Bisitarien erditsua taldeko bisitak gidatuetan etorri zen, halako 132 talde hurbildu baitziren Bertizera.

ANERIKO LORATEGIAREN EGOKITZEA

Joan den urteko ekintzak aztertzeaz gain, aurten egiten ari direnak ere errepasatu zituzten bileran. Zehazki, Tenientxearen gibebeko aldean, lorategi botanikoaren eremutik kanpo dagoen Añeriko lorategiaren egokitze lanak urte bukaera baino lehen akitzea espero dute. Ondotik, publikoari zabalduko zaio. Pedro Cigak, lorategi historikoaren segida bezala eta mendirako transizio moduan osatu zuen lorategi hau, modu naturalagoan, bertako zuhaitzekin.



EUSKARARI MANIFESTAZIOA

EKAINAK 4. 17:30 - IRUÑEA - (GOLEMETATIK)

euskaraz
bizi
nahi dugu


EUSKAREN GIZARTE ERAKUNDEEN
KONTSEILUA

EZKURRA



GIZARTEA → HERRIKO LANAK

Berritze lanak egin dituzte kanposantuan eta garbilekuan

laz hilerrian hasitakoari segida emanez

Fernando ETXEBERRIA

laz kanposantua txukuntzeko zenbait lan egin ziren, besteak beste garbiketa lanak eta sarrera margotzea. Aurretik berriro ekin diote berritze lanei; Bautistak baldosa jarri du sarrerako lurrian, teilatua berritu du eta bataiatu gabeko umeak, beste erlijioetakoak edo azken sakramentua jaso aurretik hildakoak lurperatzeko erabiltzen zen toki ere garbitu du.

Udal artxiboan bada honekin lotutako istorio berezi bat. Ezkurrara bizi zera etorri zen emakume baten kasua aipatzen da, bere gizona- rengandik banandu ondoren, eskale eta alkoholiko bihurtuta, zoratu egin omen zen. Handik denbora pixka batera, larriki gaixotu zen eta apaiza bera konfesarazera joan zenean, gurutzera erakutsiz egin dako pekatuetaz da-

mutzeko eskatu zionean, ohetik haserre jeiki eta txistua bota zion gurutzeari. Apaizak hileta eskubidea ukatu zion eta bere senideei emakumearen gorpua eremu sakratutik kanpo, hilerriko bazter horretan lurperatzeko agindua eman zien. Baina, senideak goitzainarengana joan eta emakumea bere onetik aterata zegoela argudiatuta, hilerriko bazter horretatik atera eta hilerrian, beste kristauekin batera lurperatzea lortu zuten.

GARBILEKUA

Herriko beheko garbilekua hondatzen hasia zela ikusita, zortzi lagunek taldetxo bat bildu zen maiatzaren 7an auzolanean konpontzeko. Teilatu zaharra kendu eta berria jarri zen eta barruko aldea ere txukundu zuten. Emakumeak bildu ohi ziren bertan arropak garbitzeko eta elkartuta denbora asko pasatzen zuten, garbilekuari *Academia de la lengua* deitzen hasi ziren batzuk.



ARGAZKIAK: F. ETXEBERRIA

Goian, ezkerrean, hilerri ondoko eraikin zaharberritua. Lerro hauen gaineko aldean, garbilekuko teilatua berritze lanak.



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

San Migelen bisita maiatzaren 2an

Maiatzaren 2an, San Migelen irudia etorri zen herrira, Jesus Sotil apaizaren eta Leongo bere lagunaren eskutik. Azken urteetan santuari eliz atarian egiten zaio ongi etorria, nahiz eta garai bateko ohitura santuaren irudiaren zain ermitan egon eta gero prozesioan parrokiara etortzen zen. Meza nagusia ospatu zuten eta santuari muxu emateko aukera ere izan zuten bertaratutako zirenek. Elkarrekin, eliz atarian agurtu zuten santuaren irudia. Ez zen izan ordea azken agurra, antzinako ohitura mantenduz, gaueko 9etan alkatea eta zinegotziak Barranka ostatuan elkartu eta santuaren irudia bertan zutela, elkarrekin afaldu zuten. Musean partida batzuk jokatu ondoren esan zioten hurrengo urtera arte agur. Aipatu behar da gainera, San Migelen bisitarekin ordezkari politikoek, ez zutela Iruñean sortu zen bezalako arazorik izan. Denak kontent *Migel, Migel guria, gorde, gorde Euskal Herria* estrofa abestu zuten.



HIRIGINTZA → HERRIAREN ETORKIZUNEAN ERAGIN HANDIA IZANGO LUKE

Etxebizitzak eraikiko lirateke pertsona batek izena emango balu

Obra egiten
hasita, 18
hilabete
bukatuko lukete

Juana MARI SAIZAR

Udal taldeak bilera deitu zuen maiatz hasieran herrian egin asmo dituzten etxebizitzaren inguruan hitz egiteko. Proiektu honek herriaren etorkizunean eragin handia izango lukeela azpi-

marratu zuten, «biztanleriak beherantz egin duela jakinik, gazteak herrian geratu eta kanpotik ere biztanleria eraikitzeko aukera bakarretakoa baita». Bi pertsonen dagoeneko eman dute izena, eta hirugarren batek emango balu, lehendabiziko eraikina egiten hasiko lirateke. 24 etxebizitza egitea planteatzen du proiektuak, 6 bizitzako lau eraikin, baina, etxebizitzak

saldututa egingo lirateke beste eraikinak.

Etxe guztiek hiru logela, bi komun, sukalde, egongela, balkoia edo terraza, trastelekua eta garajea izango dituzte. 150.000-160.000 euro arteko kostua izango lukete (BEZa aparte) eta zatika ordainduko litzateke, obrako fase desberdinak bukatu ahal. Informazio gehiago nahi duenak, udaletxean galdetu dezake.



ARGAZKIA: JM SAIZAR

Egun berezia herriko gaztetxoentzat

Maiatzaren 8an Hodei, Izaro, Nerea eta Yonek lehen jaunartzea egin zuten. Eguraldiak ez zuen gehiegi lagundu baina egun ahaztezina izan zen gaztetxoentzat. Elizkizuna ederra izan zen, festa giroan, musika, bertsoak eta kantak ere ez ziren falta izan. Eliza ere oso ongi apaindua zegoen eta jende asko elkartu zen. Aingerutxoek ere, maiatzeko loreak Amabirjinari eskaini zitzioten.

Ba al zenekien

Txomin Goikoetxea herritarra eta Egoi Astibia leitzarra ariko direla udan herri lanetan. Maiatzaren 2an hasi ziren lanean eta sei hilabetez kontratua egin zaie. Herriko mantenimendu eta garbiketa lanetaz arduratuko dira.



ARANO

HITZORDUA → MAITZAREN 21EAN

Festak buruan, bilera deitu dute

Elkartean
goizeko 10etan

Ainhoa ANSA

Santio festak ate joa datoz, hilabete pare bat gelditzen da, eta horregatik hauek antolatzeke lehenbiziko bilera

irekia egingo da. Maiatzaren 21ean, goizeko 10etan egin dute hitzordua San Roke elkartearen. Besten antolakuntzan zerbaitetan lagun dezakeela uste duen edonori bertara azaltzeko gonbidapena luzatu nahi diote.



UTZITAKO ARGAZKIA

Aranoko Ozen taldea, dotore kantuan

Nafarroako Haur eta Gaztetxo Kantari Jaialdian parte hartu dute Aranoko Naroa eta Leyre Egurzak, Irune Galparsorok, Oihan eta Aritz Legarretak, Irati Mentak, Unai eta Haizea Muñozek eta Eneritz eta Iraia Salaberriak. Tafallan egin zen azken saioan Txomin Artolaren *Aberriaren Mugak* kantatu zuten. A zer artistak!

LEITZA

OSPAKIZUNA → ABESTIA ETA BIDEOKLIPIA ERE EGIN DITUZTE

Udalerri Euskaldunen eguna Leitzaan ospatuko da maiatzaren 28an

‘25 urte euskara hauspotzen’ lelopean egun osoko pesta prest dute

JM BARRIOLA

Leitzako Udalak, herriko hainbat eragilek eta UEMAK hilabeteak daramatate maiatzaren 28ko egitaraua antolatzen. *25 urte euskara hauspotzen* da aukeratu duten leloa, izan ere, aurtun 25 urte bete dira Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea sortu zenetik.

ABESTIA ETA BIDEOKLIPIA

Udalerri euskaldunen egunerako, abestia eta bideoklipa ere prestatu dituzte. *Hauspotzen euskara maitatzen* izenbu-



ARGAZKIA: KILIKLON EKOIZPENAK

‘Hauspotzen, euskara maitatzen’ abestiaren grabaketan, 22 gaztetxok eta DJ Porruk parte hartu zuten. Abestiaren hitzak Leitzako bertso eskolak sortu ditu.

rua du abestiak eta elkarlanean osatu dute: Leitzako bertso eskolako kideak arduratu dira hitzak idazteaz, DJ Porruk sortu du musika eta herriko 22 haur eta gaz-

tetxo aritu dira kantuan. Bideoklipa berriz, maiatzaren 15ean grabatu zuten Ixkibar inguruan eta herriar ugari parte hartu zuten galtza zuri eta blusa beltzak jantzita.

EGITARAU BOROBILA

Txistulariek emanen diete pestari hasiera, 09:00etan herriko kaleetan zehar egingen duten dianarekin. 10:00etan arnaguneen tailerra anto-

latu dute Atekabeltzen eta ordu berean, UEMAREN batzar nagusia izanen da Udaletxean. 11:30ean herrien arteko kirol-saioa izanen da plazan eta 12:30 inguruan plazan ekitaldi nagusia egingen da, Aurrerako dantzarien eta Jeiki abesbatzako kideen laguntzarekin. 13:15ean *Euskara hauspotzen* flash moba egingen dute plazan. 14:30ean bazkari herrikoia eta bazkalondoan Angel Mariaezkurrenak gidatuta kantuan aritzeko aukera izanen da. 18:00etan haurrentzako ikuskizuna DJ Porrurerekin eta 19:30ean R Ke R elektrotzaranga herrian zehar ibiliko da. Bukatzeko, 23:30etik aurrera Lur J eta Akort ariko dira Atekabeltzen.

GONBIDAPENA

Sarreraren prezioa gonbidapen gabe: 3€ (12 urte arte dohain)

Produktu ekologikoen, bioeraikuntzaren, energia berriztagarrien eta kontsumo arduratsuen azoka

Ekainaren 3tik 5era

- 3 pabiloi tematiko
- Hitzaldiak, tailerrak eta denontzako aktibitateak
- Osasun eta ongizate jasagarria

- Show Cooking
- Bioterraza, elikagai ekologikoekin
- Zozketak
- Haurrentzako aktibitateak!

EKO esperientzia bizi ezazu!

bioterra.ficoba.org

gonbidapen bati maza eta lokarri sarreraren aukeratu

ANTOLATZAILEA

FICOB A

IRUN: GIPUZKOA
www.ficoba.org

Ficobara, zatoz trenean!

(Irun-Ficoba geltokia)

euskotren

P

dohainik

KULTURA → PINTURA ETA ESKULTURA ERAKUSKETA IKUSGAI DAGO GARBILEKUAN

Kulturaz blai egiteko aukera zabala dago oraindik ere

Eskulangintza azokaren 38.edizioa maiatzaren 29an egingen da

JM BARRIOLA

Kultur ekitaldiek segida izanen dute datozen asteetan ere.

Maiatzaren 21ean Mendibil Mendi taldearen eskutik Bidart eta Hendaia arteko bidea egiteko aukera izanen da, 08:00etan plazatik abiatuta. 19:30ean zine aretoan *Harriarekin hizketan* ikuskizuna eskainiko du Iñaki Perurenak eta harri bat ere jasoko du. 00:00etatik aurrera Sister Simon and The Holy Balls taldea ariko da zuzenean Torrean.

Maiatzaren 22an, Natur Bideen eguna ospatuko da. 12:30ean, kantutegia emanaldia eskainiko du elizan Garesko Emilio Arrieta abesbatzako kideek. 19:30ean zinean *Urumea* doku-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Txoko desberdinetatik etorritako eskulangleek produktu aukera zabala eskaintzen dute.

mentala aurkeztuko dute.

Maiatzaren 23an 19:30etan Elena Irigoienek egindako bidaien berri emanen du *Asia eta Amerika amets bat eta hamaika irrifar* argazki-hitzaldiaren bidez.

Maiatzaren 24an ixio Balerdik *Dieta garbia* hitzaldia eskainiko du Aurreran 19:30ean.

Maiatzaren 25ean *Euskaraz gara* dokumentala ikusteko aukera izanen da, 19:30ean uda-

letzeko batzar aretoan.

Maiatzaren 26an 19:30ean Atekabeltzen *Ametsen liburua* aurkeztuko dute Mikel Uriain, Iñigo Elizegi eta Miren Zabaletak.

Maiatzaren 27an, hilaletzeko azken ostirala izanik, ibilaldi-ekitaldia antolatu du 20:00etan Presoen elkartasun taldeak. 22:00etatik aurrera Mikel Illarregik *Naturaren sentimenduak eta emozioak* lana aurkeztuko du zinean.

Maiatzaren 28an

Udalerrri Euskaldunen eguna ospatuko da eta **maiatzaren 29an** 38. eskulangintza azoka izanen da plazan 11:00etatik aurrera.

Mikel Alkoz eta Koké Ardaizen lanak ikusgai egonen dira garbilekuan maiatzaren 29ra arte.

FLASH

Natur bideen eguna 22an

Plazaola Partzuergo turistikoa antolatuta, maiatzaren 22an ospatuko da Leitzan Natur bideen eguna. Plazaolako ibilbidea egin, bertako paisaiez gozatu, herriko eta inguruko eskaintza turistikoa ezagutu... 12:30etik aurrera herriko ostatuetan pintxo potea egiteko aukera ere izanen da eta egunean zehar haurrentzako tailerrak, puzgarriak, txokolatada...

Egur loteak eskatzeko aukera

Sutarako egur lotea eskatu nahi duenak, 012 telefonora deitu edo udaletxean eskaria egin behar du, ekainaren 1a baino lehen. Lotea eskuratzeko hiru modu daude aukeran: norbera arduratzea lotea bota eta garraiatzeaz, egurra kargalekutik hartzea (25 euro) edo egurra etxean jasotzea (40 euro). Eskaria egiteko orduan zehaztu behar da.

EKAINAREN 1ETIK AUERRERA LANEAN HASIKO DA

Julen Sagastibeltza herritarra izanen da Anikote kirol enpresa publikoaren gerentea

JM BARRIOLA

Ekainaren 1etik aurrera Julen Sagastibeltza herritarra izanen da Leitzako kirol instalakuntzen kudeaketaz, herriko kirol eskaintza publikoaren programazioaz eta Anikote enpresaren kudeaketa ekonomikoaz arduratuko dena.

Leitzako Udalak otsailean iragarri zuen kirol zerbitzuan aldaketak egin eta norabide berri bat emateko duen asmoa. Horretarako lehen urra-

tsa, zerbitzua zuzenean kudeatzeko Anikote Leitz, S.L. enpresa publikoa sortzeko erabakia hartzea izan zen. Horrekin batera, zerbitzu hori kudeatu eta zuzentzeko gerentea hautatzeko prozesua jarri zuen martxan eta prozesuari apirilaren 29an eman zion bukaera. Proba guztien emaitzak batu eta gero, 92,25 punturekin (100 puntu lortu zitezkeen gehienez) Julen Sagastibeltza geratu zen sailkapeneko lehen postuan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Ainara Zabaleta eta Iera Agirre herritarrak txapeladunorde Bartzelonako torneoan

Apirilaren 25ean Bartzelonan jokatu zen emakumeen esku-pilota torneoaren eta oso txapelketa berezia izan zen lehen aldiz 52 emakumek parte hartu zutelako. Lehen mailako finalera ailegatu ziren Ainara Zabaleta eta Iera Agirre baina galdu egin zuten Maite Ruiz de Larramendi eta Yanina Aristorenaren aurka.

GOIZUETA

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 6 ETA 7AN

Mundialak izan dira aurten ere Txinoko festak

Kros herrikoian Unai Señorán nagusitu zen seigarren aldiz

TTIPI-TTAPA

Maiatzeko lehen asteburuan ospatu dira Txino auzoko festak eta urtero bezala mundialak izan dira. Ostiralean Julio Soto eta Aitor Mendiluze bertsolariak aritu ziren Zubiondo tabernan.

Ondoren, Mus txapelketa jokatu zen Zubiondon bertan eta 17 bikotek parte hartu zuten. Txapeldunak Juan Miel Apezetxea eta Al-

varo Legarreta izan ziren eta arkume bana izan zuten saritzat. Txapeldun ordeak Josu Narbarte eta Vicen izan ziren eta bogabantea eta txakoli botila eramane zuten etxera.

Larunbat goizean Kros herrikoia egin zen. 20 partaide eta 20 horietatik 9 herritarrek izan ziren. Txapelduna Unai Señorán izan zen, azken 5 edizioetan bezala. Lehen herritarra Martin Etxeberria izan zen eta aipagarria 4 Etxeberria anai-arreben parte hartzea.

Herri bazkarian 150 pertsona bildu ziren, giro ederra izan zen fron-



ARGAZIAK: FELIX LOIARTE ETA ITSASO LUJANBIO

Urtero bezala, giro polita izan dute Txinoko festetan.

toian, eta bazkal ondo-
rea Garazi eta Janire tri-
kiti eta panderolariek
alaitu zuten.

Arratsaldeko ekital-

diari dagokionez, Txino-
ko plazan Zumba saioa
egin zuten, bi kubata-
rrek gidatua eta herritar
ugari animatu ziren.

Gauean Klaudioren
etxeko bajaran, urtero
bezala montatutako ta-
bernan kontzertua eta
giro ederra izan zuten.



UTZITAKO ARGAZKIA

Herritarrek Nafarroako Haur eta Gaztetxo Kantari jaialdian

Aurten ere Tafallan ospatu zen Nafarroako haur eta gaztetxo kantari jaialdian parte hartu zuten herritar batzuk apirilaren 30ean. Gatiburen *Bang-Bang* kanta abestu eta jo zuten. Abeslariak Naroa Zugarramurdi eta Janire Urdanpilleta izan ziren eta musikoak, Ane Apezetxea (teklatura), Aiora Apezetxea (teklatura eta ahotza), Unai Muñoz (bateria), Oier Miranda (gitarra) eta Janire bera trikitixarekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

Mertxeneko iturria dotore utzi dute

Azken urte hauetan gutxi xamar zaindua egon ondoren, dotore utzi dute Mertxeneko (Konejerako) iturria. Udal langileek egin dute lana eta batez ere ingurua garbitu eta harri batzuk jarri dituzte, argazkian ageri den itxura eder horrekin uzteko.

Urratsez urrats, kooperatiba baten bidez gasolindegia berri bat kudeatzeko egitasmoa aurrera doa Goizuetan. Maiatzaren 28an, larunbat goizeko 11etan eskolako jangelan

eginen dute Goizukoop kooperatibaren batzar eratzailea eta zuzendaritza batzordea osatuko duten zazpi lagun ere orduan aukeratuko dituzte. Aurretik ere hainbat lan

eta bilera egin dituzte eta ondotik ere gehiago izanen dira, baina proiektuak herritarren interesa piztu duela aipatu digu Iñigo Elizegi, bultzatzaileetako batek.

Iñigo ELIZEGI | Goizuetan gasolindegia egiteko kooperatibaren bultzatzailea

«Urte bukaera baino lehen Goizuetan gasolindegia martxan izan nahi dugu»

A. AROTZENA | GOIZUETA

Nola sortu zen Goizuetan gasolindegia eratzekeo ideia? Beharra somatzen zen?

Herria bizirik mantendu ahal izateko zerbitzuak sortzen hasi behar zela ikusten genuen lagun talde batek, eta kontutan izanda Goizuetan edozer gauzetarako kotxea hartu beharra dugula eta ikusita hurbilen dauden gasolindegia ordu erdira daudela... Goizuetan bizi nahi dugunontzat gutxiengo zerbitzu eta erraztasun batzuk eduki ahal izateko gasolindegia bat behar dela ikusten da bai.

Lehen urratsa hori kudeatzeko kooperatiba sortzea da...

Kooperatiba sortu ahal izateko gutxiengo urrats batzuk eman beharrak daude. Hilaren 28an estatutuak eta kooperatibaren zuzendaritzan egonen diren 7 kideak aukeratu eta onartu behar dira. Hortarako, nahi duenak eta aste pare bat lehenagotik, estatutuak eskuratzeko edukiko du eta zuzendaritzarako 7 izen proposatuko dira. Kooperatiban sartu nahi dutenak eta 28an azaltzerik ez dutenek, denon eskura jarriko ditugun paper bat sinatuz nor beraren botoa bidaltzeko modua ere izanen dute. Bestalde, eta esan dugun bezala, legediak araudi



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Iñigo Elizegi, gasolindegia irekiko azalpenak ematen.

batzuk ezartzen dizkigunez eta gauzak txukun egin nahi baldin baditugu, 28tik aurrera eta urte bateko epean, kooperatiban sartu ahal izateko oso zaila izango da, horrexegatik azpimarratu nahi dugu oso garrantzitsua dela 28a baino lehenago edo eta 28ko batzarrean kooperatibako kide egitea. **Orain artean egin duzun bileretan herritar asko bildu da... Intereza somatzen da?**

Herrian 770 biztanle gaude eta lehenbiziko batzarrean 110 lagun elkartu ginen; interesa handia sortu da bai, zeren eta ikusten da herriarentzako garrantzitsua izan daitekeen zerbitzu bat dela.

AZALPEN GEHIAGO

«Gasolindegia ireki ahal izateko, maiatzak 28rako ahalik eta jende gehien kooperatiban sartzea oso garrantzitsua da. Eta horretarako paper bat sinatu behar denez, maiatzaren 21ean plazan mahai bat jarriko da; Udaletxean ere norbait egonen da maiatzaren 25ean 18:30etik 19:30era; maiatzaren 26an 11:00etatik 12:00etara eta maiatzaren 27n 19:00etatik 20:00 arte. Informazio gehiago edo nor beraren iritzia emateko goizukoop@gmail.com helbidera ere zuzendu daiteke».

Inkesta bat ere egin duzue... Zein kezka dituzte herritarrek gai honen inguruan?

Besteak beste, gasolindegia ireki ahal izateko diru kopuru handi xamarra behar denez, dagoen kezka nagusitako bat da gauzak gaizki ateratzeko eta zorrak sortu ezker, orduan zergatutako ote zen. Zorretan sartuko baginake, kooperatibako kideek, asko jota eta egoeraren txarrean, hasieran botatako dirusarrera bota beharko luke berriz. Baina ikusita Goizuetan batean zenbat kotxe eta *todoterreno* dauden... gasolindegia batek bere burua ordaintzeko inongo arazoirik ez du edukiko. Kezkek edukitzea

normala da, baina horrek ez gaitu beldurtu eta deus egin gabe geldiarazi behar.

Zer gisako gasolindegia izanen litzake?

Eguneko 24 orduak irekita egonen zen gasolindegia automatikoa batetaz hitz egiten ari gara, nahi duen guziri irekia. Kooperatibako kideek txartel bat edukiko dute eta sozioa ez denak bankuko txartel arrunt batekin hartu ahaliko du erregaia, beste edozein gasolindegitan bezalaxe. Bi erregai izanen dira: gasoila A eta berunik gabeko gasolina. Bestelako produkturik ez da egonen, zeren eta nahiz eta gasolindegia deitu, berez, zerbitzu puntu bat da eta legez esaten du hiru produktu baino gutxiago jarri behar direla salgai.

Zerbitzua zeineri eskaini nahi diozue?

Goizuetarako, gasolindegia ez dugu ikusten negozio bat bezala, herriarentzako beharrezkoa den zerbitzu bat bezala baizik. Eta kooperatibaren bitartez, ahalik eta zerbitzu hobeto eta merkeena lortu ahal izatea da gure helburua. Eta gainera irabaziak ere ematen baldin baditu, herrian beharrezkoak ditugun beste zerbitzu edo egitasmoak finantzatzeko laguntza gisara baliatu litezke.

ARKUPEAK

GIZARTEA → MAIATZAREN 11KO BILERA

362 euroko superabita izan zuen iaz erretiratuen elkarteak

Maria Cristina Apeztegia Saldias da Iturengo ordezkari berria

Fernando ETXEBERRIA

Arkupeak elkarteko ordezkarien bilera maiatzaren 11n izan zen. Bertan gai ugari landu ziren. Hasteko, Iturengo ordezkari berria M^a Cristina Apeztegia Saldias izatea adostu zuten. Zeregin horretan, Arano-ko bazkideren baten laguntza izatea komenigarria izan litekeela esan zuen Goizuetako ordezkariak eta ideia ego-
kia zela pentsatuta, M^a

Jesus Zugarramurdi aukeratu zuten lagun-tzaile lanetan aritzeko.

2015 urteari dago-kion kontuen balantzea ere aurkeztu zuten. Diru-sarrerak 570.398,33 eurokoak izan dira: Nafarroako Gobernuak emandako 14.147,13 euroko diru-laguntza, Fundación Caja Navarrrak emandako 2.000 euroak eta bidaiei, kuotei, ikastaroiei... dagozki-
en 554.251,335 euro. Gastuak berriz, 570.035,94 eurokoak izan ziren. Urtea beraz, 362,52 euroko superabitarekin bukatu zuen elkarteak.

Fernando Etxeberriak 2016 urte hasieran egindako ekintzen la-



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

Lourdesera bidaia egin dute 73 bazkidek

Maiatzaren 5ean, 06:30ean abiatu ziren Leitza eta Doneztebetik Lourdes alde-
ra. Bidean geldiadia egin zuten 12:00ak baino lehen, Doneztebeko apaizak au-
rrez hitzartua zuen kapera baten inguruan, eta bertan meza nagusia eman zu-
en. Lourdesera iritsi eta agerraldiak egon diren haitzuloa bisitatzeko aukera
izan zuten. Acadia hotelean bazkaldu zuten 13:30 aldera eta segidan errosa-
rio santua erreztatu eta gaixoen prozesioa ikusteko aukera ere izan zuten, gai-
xoek duten fedea egiaztatuz. 18:30 aldera abiatu ziren etxe aldera bueltan.

burpena egin zuen: herrietako festak, bida-
iak eta mendi irteerak. Rosa Bertizek eginda-
ko ikastaroak aipatu zi-
tuen. Informazio guzti
hau azkeneko boletine-
an topa liteke.

BIGARREN URTE ERDIKO ATERALDIAK

Bigarren seihielkora-
ko ekintza hauek anto-

latu dituzte: Aralar,
Arantzazu eta Lezora ur-
tero egin ohi diren irtee-
rak, herrialde Baltikoe-
tara 8 eguneko bidaia,
urrian Benidormera joa-
teko aukera (berriz ere
Fenicia hotelean), Na-
farroako Pirinioetara
mendi-irteera urriaren
6an, Lodosara ateraldia
azaroaren 3an, Kanari-
ar Uharteetara bidaia

azaroaren 4tik 13ra eta
Zumarragako azokara
egun pasa abenduaren
13an. Aurreko urteetan
bezalaxe, urriaren 20an
ospatuko da Bazkide-
en eguna Gorraizen.
Bazkideei omendaldia
egiteaz gain, margo, ar-
gazki eta literatur lehia-
ketetako irabazleen sa-
ri banaketa orduan egi-
nen da.

LAN BALDINTZAK HOBETZEKO

Mobilizazioetan hasi dira Elizondoko Benito Menniko langileak

TTIPI-TTAPA

Beraien lan baldintzak ho-
betzea eskatzeko mobiliza-
zioetan hasi dira Elizondoko
Benito Menni Ospitale Psikia-
trikoko langileak. Hasteko, ma-
iatzaren 13an, kontzentrazioa
egin zuten, *Benetako nego-
ziazioa orain!* izenburupean.

Gaur egun 130 langile ditu
Benito Mennik eta 9 delega-
tuak ELAkoak dira. Sindikatu
honek ohar bidez aipatu due-
nez, «langileen jarduna ez da

baloratzen, lau urtez izoztuta
utzi ondoren, enpresa solben-
te eta saneatu honek ez ditu
langileen baldintzak hobetu
nahi».

Enpresak egiten duen pro-
posamenak lan baldintzak
kaxkartzen dituela uste du
ELAk: «Bere ustetan, langile-
ok gure jarduna handitu be-
har dugu (egunez lan egiten
dugunok 7 ordu, eta gauzez
egiten dugunok 14), antzina-
tasuna izoztu egin behar du-

gu, eta horren trukean %0,5
xixtrin bat eskaintzen digu,
gainera Hitzarmena sinatzen
denetik aurrera».

Langileen Batzordeen pro-
posamena bi urtetarako da,
«2018tik aurrera ikusiko dugu
zer datorren, baina zenbaki-
ak ikusita, badakigu enpresak
nahikoa egoera ona duela guk
aurkeztutako plataformari au-
rre egiteko». Batzordearen iri-
tziz, enpresak, irailetik maia-
tzera denbora irabazi du, eta

egindako azken proposame-
nean ez da egon inolako al-
daketarik hasieran proposa-
tzen zuenarekin alderatuta.

Horregatik langileok mobi-
lizatzea erabaki dute. «Beni-
to Menni enpresak, nahiz eta
urteak joan eta urteak etorri
emaitza positiboak eduki di-
tuen, langileoi beti ikuspegi
apokaliptiko bat marrazten di-
gu, gure eskaerak deslegiti-
matzeko helburuarekin», dio
ELAren oharrak.

GIZARTEA → UDALAREN BEKA

Herria ikergai duten hiru proiekturi 500 euroko laguntza

Alaitz Arretxea,
Oihana
Otxandorena
eta Josune
Berho dira
Nafarroan
aitzindari den
lehen deialdi
honetako
onuradunak

TTIPI-TTAPA

Baztan ikerketagai duten ikasketa akaberako hiru lan eta proiektu diruz lagunduko ditu Udalak. Nafarroan aitzindaria den eta urte-

ro errepikatu nahi den deialdi honetara hiru egitasmo aurkeztu dituzte eta bakoitzak 500 euroko beka izanen du.

Joseba Otondo alkateak aipatu duenez, «Baztan ikerketagai duten ikasketa akaberako lan eta proiektuak diruz laguntzeko apostua, gazteak beren ikasketekin Baztanen alde inplikatzeko eginahala da. Baztango garapen sozial, ekonomiko eta kulturalari buruzko begirada berriak eta haize freskoa behar ditugu eta, horretan, baztandar gazteek zer egin hantzia dute».



UTZITAKO ARGAZKIA

Onuradunetako batzuk, udal ordezkarekin batera.

ONURADUNAK

Modu horretan, aurtengo onuradunak hauek dira:

- Alaitz Arretxea, Enpresen administrazio eta zuzendaritzako ikaslea NUPen. Aukeratutako gaia: *Turismoaren eragina Piriniotako haran baten ekonomian: Baztan.*

- Oihana Otxandorena, Antropologiako ikaslea EHUn. Aukeratutako gaia: *Tradizioa eta generoa: Baztango mutildantza.*

- Josune Berho, Artearen Historiako ikas-

lea EHUn. Aukeratutako gaia: *XVII.-XVIII. Mendeetako Baztango goi-mailako etxebizitza tipologia.*

Aurten aurkezturiko gaiek, Udalak hasieratik bilatzen zuen aniztasun hori ederki erakusten dute: ekonomia, gizartea, kultura... ukitzen duten ikerketa proiektuak dira eta, horrek, gure landa-eremuari buruzko begirada konplexu eta anitza eraikitzen lagunduko du. Deialdi hau ondoko urteetan errepikatzen den neurrian, Baztani bu-

ruzko baztandar gazteen ikerketa eta lanak ugarituko dira. Horrek, alde batetik, «gure burua ezagutzeko gero eta aukera handiagoa ematen digu eta Baztani buruz interesgarriak izan daitezkeen proiektuak garatzeko aukera ere bai», erran zuen alkateak. Bertzalde, baztandar ikasleendako beren herria arretagune akademiko bezala ezartzen lagunduko du eta herriari buruzko konpromisoa modu batean edo bertzean elikatze balioko du.

Udako jostaldia eskuaraz

Baztanen 2016ko uztailean eta abuztuan
3-12 urte bitarteko haur eta gaztetxoendako

NOIZ
Uztailean (18-29) eta abuztuan (1-12), goizeko 10:00etatik 13:00etara

TXANDAK
1- Uztailearen 18tik 29ra | Erratzun (Kodea ER)
2- Abuztuaren 1etik 12ra | Elizondón (Kodea EL)
(Aste bakarra ere egin daiteke, baina lehentasuna bi aste egiten dutenek eta Baztanen erroldatutakoek izanen dute)

HELBURUAK

- Udako aisialdiaz gozatzea.
- Baztango haurren arteko harremanak bultzatzea eta estutzea.
- Baztango kultura eta natura ezagutzeko.
- Haurren garapen pertsonala lantzea.
- Ingurumenarekiko jarrera positiboak sustatzea.

JARDUERAK
Jokoak, eskulanak, parekidetasunean hazteko jolasak, tailerrak (birziklatzea, buztina, antzerkia,...), ateraldiak, kirola...

PREZIOA
Baztanen erroldatuak

- 70 € txandako | 35 € aste bakarra.
- 55 € familia ugaria bada edo txandan haurride bat baino gehiago badira 35 € aste bakarra.

Baztanen ez erroldatuak

- 110 € txandako | 55 € aste bakarra.

IZEN-EMATEA
Telefonoz Dindaia Fundazioan Tel.: 696 27 75 99.
Maiatzaren 18tik 27ra goizeko 10:00etatik 13:30era.
Epea luzeazina. Plaza mugatuak. Ordainketa egin baino lehen izena emateko deitu, eta ordainketa egitean haurraren izena eta kodea jarri. Kontu zk. (La Caixa) 2100 5255 10 2200035704
Ordaintzeko azken eguna: Ekainaren 1a

...HORI GUZTIA ESKUARAZ

AURKEZTU BEHARREKOA
Familia ugariaren txartela, behar izanez gero, Baztan Balleko Etxean.

euskaraz bizi nahi dut

Antolatzailea:
Baztango Udala
Euskara Zerbitzua

BAZTAN

GIZARTEA → BI SALAKETA JARRI DITU

Aroztegiako sustatzaileek epaitegietako bidea hartu izana salatu dute

Garbiñe Elizegi alkate ohia, Joseba Otondo gaur egungo alkatea eta prentsaurreko batean parte hartu zuten zazpi baztandar

TTIPI-TTAPA

Lekarozko Aroztegiako egitasmoaren sustatzaile den Palacio de Arozteguia S.L. enpresak epaitegietako bidea hartu du. Alde batetik, Garbiñe Elizegi alkate ohia eta Joseba Otondo alkateari prebrikazio delituagatik jarri die auzia enpresak eta ekainaren 24an deklaratu beharko dute lruñeko Instrukzio Epaitegian.

Bertzetik, Andone Garde, Begoña Etxandi, Itziar Torres, Agurtzane Obregozo, Karlos Beristain, Garbiñe Elizegi eta Miren Meokiri, prentsaurreko baten egindako adierazpenengatik 50.000 euroko kalte ordainak eskatzen dizkiete, berteaz bertez.

Honen aitzinean, Aroztegia... eta gero zer? Plataformaren ustez, «argi dago jokaldi

honekin enpresaren helburua herritarrak isilarazi eta beldurtzea dela, eta baztandarrok Aroztegiako proiektu urbanistiko espekulatzailaren aitzinean dugun iritza ez ematea». Plataformak jakinarazi duenez, «dirudunak izateagatik Nafarroako komunikabide hegemonikoak beren bozgorailu bezala erabiltzen ahal dituzte, herrialdeko abokatu garestiena kontratatzen ahal dute, UPN eta Geroa Baiaren gobernuengandik lehentasunezko tratua jasotzen ahal dute, baina ezinen dute inolaz ere ehundaka baztandarrek abiatu dugun herri galdeketa-ren prozedura geldiarazi».

Aroztegia... eta gero zer? Plataformak gogor salatu nahi du enpresak jazarpen judiziala aukeratu duela, «batzuk gatazka sozialaren aitzinean irtenbide demokratiko bat planteatzen dugun bitartean». Eraso honen aitzinean, Plataformak inoiz baino argiago du abiatu den bideetik segitu eta ez due la etsiko helburua lortu arte: «Eskatzen dena argia da, eta ehunka baztandarren sinadurekin eta apirilaren 23an Elizondoko karriketan eskatu duten gauza bera da: Herri galdeketa».



ARGAZKIA. JUAN MARI ONDIKOL

Aierdi azalpenak ematen, komunikabideen eta proiektuaren kontrakoak aitzinean dituela.

MAIATZAREN 10EAN, SUSTATZAILEEN ESKUTIK

Protesta artean bisitatu du Manu Aierdi presidenteordeak Aroztegia

TTIPI-TTAPA

Manu Aierdi, Nafarroako Gobernuko Garapen Ekonomikorako presidenteordeak Lekarozko Aroztegia ingurua bisitatu zuen maiatzaren 10ean sustatzaileekin batera eta Nafarroako Gobernuaren babesa eman zion proiektuari. Bien bitartean, Aroztegia eta gero zer? Plataformako kideek herri galdeketa eskatuz eta Barakosen gobernuaren jarrera salatuz oihu egin zuten eta enpresak zazpi baztandar auzira eramanez dituela salatu zuten.

Manu Aierdiren erranetan, «Nafarroako turismorako eta Baztanen lana sortzeko baliagarria» izanen da Aroztegiako proiektua. Gehien bat turismoaren arloa azpimarratu zuen, hotelak 135 logela bikoitz izanen lituzkeela eta urtean 98.550 plazako potentziala duela. Lan arloari dago-kionez, eraikuntza fasean 50 lanpos-tu eta funtzionatzen duenean bertze 52 sortuko dituela aipatu zuen presidenteordeak. Proiektuak sortzen duen kontrako jarrera ere ez duela ulertzen aipatu zuen: «Ez da ulergarria interes pribatua espekulazioarekin, pelotazoarekin edo gisakoekin lotzea... Erakunde publikoen aldetik, bidezkoa den interes pribatu hori in-terese kolektiboarekin bat egitea lortu behar da, eta halaxe gertatzen da Aroztegian». Herri galdeketa-ren fasea gaitutua dagoela ere adierazi du presidenteordeak.

Baztanera egindako bisitan Manu Aierdi Nafarroako lehenadakari ordeak egindako adierazpenak salatu ditu EH Bilduk. «Aroztegiako PSIS-a hasieratik gaizki jaio zen egitasmoa da, funtzioetan zegoen gobernu batek onartu baitzuen Baztango udalari dagozkion eskumenak urratzeko asmoarekin» adierazi du Adolfo Arazek, EH Bilduko parlamentuko parlamentariak. «UPNren pozoindutako herentziaren beste parte bat dugu Aroztegiakoa. Lehendakariordeak nahi ala ez, etxebizitzaren eraikuntzarako negozio bikaina topatu dute Aroztegian egindako lur sailen errekalifikazioarekin».

Nafarroako Gobernuaren iritzia eta bere alderdiaren iritzia nahastu ditu Aierdik, EH Bilduren ustez: «Ezin da onartu Aierdi lehendakariordeak proiektu espekulatibo honi ematen dion babesa, alaketaren gobernu-a sustengatzen dugun lau indarren jar-rerarekin nahastea».

Aierdik eskatzen duen ikusmira argi du EH Bilduk: «zonaldeko beste eragileek bezala, babesa erakusten diogu Aroztegiako proiektu turistikoa, bainan erabat kontra gaude, proiektu horrekin batera sartu nahi duten asmo urbanistikoarekin. Ez gauden promozio turistikoren kontra» adierazi du Arazek, «baina ezin dugu onartu UPNk egindako errekalifikazio *ad hoc* bat onartu, pelotazo urbanistiko berri bat babesteko».

GIZARTEA → MAIATZAREN 11KO EZ-OHIKO BILKURAN

Bigarrenen onartu dituzte 2016ko udal aurrekontuak

EH Bilduk eta Ezkerrak landutako proiektuak Geroa Bai eta Auzolanean taldeen babesa izan du

TTIPI-TTAPA

Bi aste lehenago gibelera bota ondotik, EH Bilduk eta Baztango Ezkerrak landutako aurrekontu proiektuak argi berdea izan du bigarren saikeran. Hala, gobernuko taldeetaz gain Geroa Bai eta Auzolanean babesa ere izan du, denera aldeko 9 bozka eta UPNren kontrako 4.

Aurrekontua 7,8 milioi eurokoa izanen da. Azkeneko urteetako gastu arruntaren egitura mantendu da eta inbertsioen atalean aipagarrienak Amaiurko urdeposituak lanak (208.050 euro), 2014ko uberroek kaltetutako hiru bideren konponketa (33.240) Gartzain eta Arizkongo eskoletako lanak (30.000 euro barneko), hiltegiko lanak (17.000 eta 13.000 euroko bi kontusail), mendilanak (155.000)... Geroa Bairen hiru ekarpen sartu dira aurrekontuetan: Elizondoko plazako eraikineko lanak

hasteko 30.000 euro eta 5.000 euroko bi partida, Arizkun eta Erratzuko alkateen eskariei erantzunez: ikasleendako autobus geltoki bat eraikitzea eta kontainerren tokialdatzea eta hauek ubikazio taulekin kokatzea.

Egonkortasun legea dela eta, udalak 86.000 euro kontingentzietarako bideratu beharko ditu, hau da, nahiz diru-sarrerara gehiago izan, diru hori ez du gastatzen ahal eta, horregatik, aipatu atal berrirako bideratu beharko du.

Udaleko kontuak gero eta bideragarriagoak dira, aurten zorra %80koa baita; 2010ean legeak gehienez finkatutako %110 gauditu zen, %135rat ailegatuz. Hala, iaz bezala aurten ere zorra kitatzeko 600.000 euro inguru erabiliko da.

Gainerakoan udal aurrekontuen barnean, udalaren erakunde autonomoetako kontuak onartzen dira, Ikastolarena eta zahar etxearena. Lehenaren aurrekontua 669.000 eurokoa da (udalaren kontu 45.000 euro) eta bigarrenarena 119.125 euro.

Hasierako onespina eman ondotik, ondoko asteetan iazko kontuak itxiko dira eta soberakin horretatik Lekarozko eskola berriaren lanak eta zahar etxeko sukaldako lanak egingen dira.



UTZITAKO ARGAZKIA

Mus eta seien txapelketa Elizondoko Zahar Etxean

Elizondoko Francisco Joaquin Iriarte Zahar Etxean mus eta seien txapelketak jokatzen dituzte. Museko bikotea Zahar Etxeko egoile eta herriko barride batek osatzen dute, beraien harremanak zabaltzeko eta herrikoekin loturak mantentzeko helburuarekin. Apirilaren 25ean egin zen sari banaketa eta merendua, eta txapelketetan parte hartutako 50 partaideak elkartu ziren Zahar Etxean. Mus txapelketan hauek izan ziren sarituak: 1. Francisco Larunbe eta Ignacio Elizetxe 2. Gabriel Urdaniz eta Jose Fermin Lertxundi 3. Juan Jose Kerejeta eta Jose Luis Alzugarai eta 4. Juan Jose Goñi eta Santiago Larre. Txapelketa honetan bi emakume ere goraipatu zituzten, laurogeita aunitz urterekin musean jolasten segitzen dutelako: Antonia Etxenike eta Anuncia Duhalde. Seien txapelketari dagokionez, txapelduna Marina Remiro izan zen, azpitxapeldun Francisca Danborena, hiru garren Ino Arriada eta laugarren Cristina Aldaco eta Julia Arozarena.

MAIATZAREN 16TIK 22RA

Bizikletaren Astean murgilduak gaude

TTIPI-TTAPA

Bizikletaren Astean bete betean sartuak gaude. Ortzegunean, Arraioz eta Gartzainek elkarrekin frontoian ttikien jinkana eta handiekin itzulixka egingen dute. Elizondon, berriz, *Baztandarren oporrak bizikletan* diapositiba emanaldia eskainiko dute 20:00etan Arizkunenean.

Maiatzaren 20an, ortziralean, Amaiurren 10:00etan HHkoak triziklo-bizi jinkana izanen dute. 11:00etan

LHkoak herri eta inguruetan bizikleta ibilaldia egingen dute. Arizkun 15:30etik 16:30era, HHko 3, 4 eta 5 urteko ikasleekin herriari itzulia eta akitzeko jinkana. Elizondon, 18:00etan bizikleta itzulia plazatik hasita. Ttikienendako jinkana luzeko plazan eta ondotik txokolatada denendako.

Maiatzaren 22an, igande goizeko 9:30ean Elizondoko plazatik abiatuta, ibilaldi zikloturista egingen dute Baztango herri guztietan barna.

ANZABAL INMOBILIARIA



- Zurich Aseguruak
- Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
- Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
- Errenta Deklarazioa, BEZa...
- Inmobiliaria
- Baserri, borda, pisu, etab... salmenta eta alokairua
- Gestoria

Santiago, 15 • ELIZONDO • T./F. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

BAZTAN

KIROLA → MAIATZAREN 29AN

Arizkunen eginen da XXIII. Mendi Itzulia

31 kilometroko luzera eta 2.000 metroko desnibelarekin

TTIPI-TTAPA

Arizkunek hartuko du Baztango XXIII. Mendi Itzuliaren lekukoa. Heldu den maiatzaren 29an, igandea, egin du hitzordua Baztango Mendigoizaleak elkar-teak eta egun horretan biltzen diren mendizaleek 31 kilometroko luzera eta 2.000 metroko desnibela duen ibilaldia egiteko aukera izanen dute.

Arizkundik abiatuta Soalarerrako bidea hartuko dute mendizaleek. Gero Iñarbegira jeitsiko dira eta ondotik Istauz, Argañeta eta Urruskan

barna ibiliko dira, Berdaitzera jeitsi aitzinetik. Handik Zarkindegira abiatuko dira eta Genda eta Agozpeko presatik pasatuta Arrondoko bordara ailegatu-ko dira. Maulitxera igota, Arizkun alderako bidea hartuko dute maldan beheiti.

IZEN-EMATEA

Mendi itzuliaren eguna baino lehen, Interneten izena emateko epea maiatzaren 27an akituko da, eta interesatuek www.mendizmendi.com web orrian egin dezakete zortzi euro ordainduta. Horrez gain, info@baztangomendigoizaleak.org helbidera idatzita edo 680 456867 telefonora deituta ere apunta daiteke. Edo



UTZITAKO ARGAZKIAK

Zaborrak auzolanean biltzen aritu dira Anizen

Baztango Udalak ekainaren 5ean ingurumenaren nazioarteko eguna dela eta, herri guztietan gisa honetako ekintzak egiteko eskatu zuen. Honen berri baztarrean solastatu ondotik, ekainaren 5a artio zain egon beharrean, apirilaren 30ean egitea erabaki zuten Anizen. Trinteteko eta Azkarateko parajeetan botatako zaborra bildu eta kamioiak sartzeko modua izanen duen tokian utzi dute guztia erretiratzeko. «Ea hemendik goiti horrelakoak egiteko beharrik ez dugun!», aipatu dute aniztarrek. Akitzeko, auzolan guztien ondotik egin ohi duten bezala, pintterdia zuten elkartean.

bertzela, egunean be-rean Arizkunen, 10 eu-ro ordainduta eta

06:15etatik aitzinera. Ibilbidea 07:00etatik 07:30era abiatuko da.

Informazio gehiago: www.baztangomendigoizaleak.org.

ETXEBIZITZEN SUSTAPENA ALMANDOZEN



Ezaugarriak:

- 101 m²ko etxabea lursailarekin
- 1º solairua, 69 m² eta 75 m²ko etxebizitzak
- 144 m²ko teilatupea
- Distribuzioa bezeroak aukeran

126.000€

SAROB
ERAIKUNTZAK

info@sarobe.eus
www.sarobe.eus
629 687 171
mmstudio-k diseinatu
www.mmstudio.info - 651 776 998

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 25ETIK 29RA

Almandozko Bestaberri bestak egitarau zabalarekin datoz

Pilota partidak
eta patata
tortilla lehiaketa
izanen dira
egun handian

TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, Bestaberri egunaren inguruan besta egitarau zabalarekin prestatu dute aurten ere Almandozen. Egun handian, mezaz gain, pilota partidak eta patata tortilla lehiaketa izanen dituzte eta hondar egunean, herri kirolak eta magraren zozketa izanen dituzte.

ASTEAZKENA, MAIATZAK 25

- 13:00 Txupinazo.
- 21:00 Baztan Zopak.

ORTZEGUNA, MAIATZAK 26

- 8:00 Aurora Bixentek alaiturik
- 12:00 Meza nagusia (Ondoren Luntx frontoian).
- 17:00 Pilota Partidak.

- 20:00 Patata Tortilla lehiaketa.

ORTZIRALEA, MAIATZAK 27

- 10:00 Gymkana.
- 17:00 Mus Txapelketa.
- 17:30 Zumba.
- 18:30 Txokolatada.
- 22:00 Herriko afaria.
- 00:00 Oharkabe.
- 06:00 Xinger jatia (A-tsaldean puzgarriak).

LARUNBATA, MAIATZAK 28

- 10:30 Mus finala.
- 14:00 Zikero Jatea (Ondoren Beñat).
- 21:00 Herriko gazte-afaria.
- Ondoren gaupasa Beñatekin.
- 06:00 Xinger Jatea.

IGANDEA, MAIATZAK 29

- 12:00 Meza nagusia (Ondoren Prozesioa).
- 17:30 Herri Kirolak (Ondoren magra zozketa). Arratsaldean puzgarriak ere izanen dira.
- 22:00 Gaixoa ni.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Bi pilotari haundi eman zituen Almandozek XX. mendean, biak anaiak eta biak omendu zituzten. Goitian, 1965ean Roman Pierola 'Plaza-gizon'-i eskainitako omenaldia. Behegian, 1983an Elias Pierola 'El genial'-i egindakoa: pilotan Lajos, Bengoetxea III, Lazkano eta Arretxe eta aizkoran, Donato Larretxea eta Joxemari Olasagasti gazteak, gainezka ageri zen Ederrena pilotalekuan.

Mármoles SOULE
HILETA ARTEA
T. 948 453 444 | M. 688 605 182
ARIZKUN

Pierresenea
OSTATU · JATETXEA
Jaki tipikoak · Etxeko giroa
Iturriotz auzoa · Tfnoa: 948 592 043
ORONÓZ · MUGAIRI

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
SARE SOZIALEAN
facebook
www.facebook.com/ttipi.eus

URDAZUBI

GIZARTEA → MAIATZAREN 8AN

Herriko azken dendak ateak itxi ditu bestak akitzearekin

Anaxtaxi Bidart erretiratzerakoan amak 1952an irekitako negozioak ez du segidarik

Iñigo IMAZ

Dantxarinek bentak alde batera utzita, Urdazubiko herriguneko azken dendak ateak itxi ditu herriko besten ondoren. Anaxtaxi Bidart jubilatatu ondoren, bere ama zen Pepita Organbidek 1952an irekitako negozioak ez du jarraitzen izan.

Monastegi zahararren eraikinetako batean ireki zuen Pepitak bere denda, alargun geratu zelarik. Senarra Anas-tasio Bidart, gazte hil zen, alaba tikiarekin utziz Pepita. Garai hartan, emakume alargunek, familiaren lagun-

tzarik gabe, zaila zuten aurrera egitea. Pepita etxerik gabe eta ogibiderik gabe geratu zen. Ezkondu aurretik, Aldu-regian dendarit aritu zen Pepita, *Trois soires* (hiru ahizpak) deituak izan ziren Ixabel Jaimerena, Julia Organbide eta Pepita bera. Anaxtaxiren amatxik, Gantxeneako Dolores Gurrutxagak Pepitari etxea eman zion eta denetariko denda ireki zuen Salbatore plazan.

Herrigunea orduan, gaur egun bezala gune aktiboa zen, baina egun jatetxe eta ostatuak nagusi diren arren, karrika haietan hainbat denda zeuden: Bardoxtegia (Konfiteruarena etxean), Fifi (gaur egungo Koxkan), Estebekorenatarren denda (Apalenean), Juakintxoren okindegia (Apalenearen ondoan), Paulita Etxea gozodenda,



UTZITAKO ARGAZKIA

Anaxtaxi Bidart, bere dendan lanean, 1980. hamarkadako argazki batean.

Ariztiaren harakindegia, Karreteroren ardotezia (Indiano Baitan)... Ejerzito espainolaren kanpamendua Ugarana ibaiaren bertze aldean zegoen, Baztango lurretan baina herriaren ondoan. Urdazubik 600 biztanle izatera iritsi zen eta karrikak jendez gainezka zeuden orduan. Ustegabea etxean, Zenozek taxista lanak egiten zituen.

«KONTRABANDOAN, ARGAL JOAN ETA HAURDUN BUELATU»

Anaxtaxik komentatzen duenez, janari denda ez zen diru-iturri bakarra: «orduan topolonoak (oinetako mota bat), oihaletak eta holako gauzak ekartzen zituen amak kontrabandoan Donibane Lohitzunetik:

argal joaten ziren eta haurdun bueltatzen ziren!» dio, irri artean Anaxtaxik. Amak sukaldatzen ikasi zuen Irungo Maisonabe Hotelean eta Elizondoko Engomez jostunarekin ikasi zuen josten, eta Pepitaren dendan herriko hainbat emakumek ikasi zuen josten: «Ama alargun geratu zen, eta aurrera ateratzeko denetarik egin zuen. Bere ezbeharrak gaitzetsuak izan zen denda. Ez zen soilik ogibide bat izan. Hona jostera etortzen ziren gazteek alaitasuna eman zioten. Irratia pizten zuten, eta abesten eta alaitsu pasatzen zuten eguna».

Azken urteotan, hainbat pertsonaia ospetsu pasatu dira dendatik. Politikariak (Iñigo Urku-

llu, Yolanda Barcina, Karmelo Landa...), abeslariak (Mikel Laboa, Natxo de Felipe, Ruper Ordorika, Niko Etxart, Pantxoa eta Peio), kaze-tariak...

Besten azken egunean, azken dendak ateak itxi ditu eta herriko historiaren atal berezi baten amaiera izan da. Herriarren artean tristuraz hartu da berria, baina, Anaxtaxik, 1986tik lanean aritu den urdazubiar maitatuak, erretreta hartzeko ordua dela uste du: «Garai batean, lana eta lana, bertzerik ez dugu egin. Etxekoek behartuta hasi nitzan ordutegi bat paratzen, ia, ia behartuta. Dena den, ez naiz aspertuko, badituz gauza aunitz egiteko eta ikasteko oraindik».

Pinturas
Iñaki Alzuyet
margoak

Tel: (0034) 659 862 417
31711 URDAZUBI (Na)

**FATXADAK,
BARNEALDEAK
eta
PLADURRA**

pinturasalzuyet@yahoo.es

JATETXEA-ERRETEGIA
MONTXO
OSTATUA-TABAKO-DENDA

Egunero irekia
09:00etatik
02:30era

Dantxarineatik
2 km. tara

**PLATER KONBINATUAK • OGITARTEKOAK
MENUAK ENKARGUZ • PINTXOAK
ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN**

ANZAN-BORDA • URDAZUBI | 948 599 039
montxoblanco@gmail.com

TTIPI-TTAPA
ALDIZKARIA
SARE SOZIALETAN

facebook

www.facebook.com/ttipi.ttapa
www.facebook.com/ttipi.eus

EGIN ZAITEZ GURE LAGUN

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 8AN

Milaka lagunek parte hartu dute 33. Herri Urratsean

Irabaziak Bernat Etxepare lizeo berriaren alde izanen dira, lehen aldiz lanbide heziketa euskaraz eskaintzeko Iparraldean

Franck DOLOSOR

Euskalki guziak gaztelania eta frantse-sarekin nahasi ziren Senperereko aintziraren aurtengo Herri Urratsen kariatarat, Euskal Herri osoko lagunek parte hartu baitzuten ikastolen aldeko besta haundian. Aurtengo irabaziak Bernat Etxepare lizeo berriaren alde izanen dira eraikin berria altxatuko baitute lehen aldikoz lanbide heziketa euskaraz eskaintzeko Iparraldean.

Bertako erakunde eta sentsibilitate guzietako hautetsiak ere Senpererat joan ziren. Frédérique Espagnac senatari sozialistak jakinarazi zuen hizkuntz legea prestatzen ari direla euskarazko irakaskuntza bermatzeko. Zirriborrea laster aurkeztuko du Parisen. Akitaniako lurralde gober-

nuak 7 milioi euro ematen dizkio Seaskari Etxepare ikastetxe berria eraikitzeko eta Pirineo Atlantikoetako departamenduko kontseiluak laguntza ematen du laugarren kolegioa idekitzeko Baionan. Akademia ikuskariak jakinarazi zuen laster irakasle euskaldun gehiago hartuko dituztela gero eta ikasle gehiago dabilelako euskarazko ikasgeletan.

Lehen aldikoz, Nafarroako Gobernuak ordezkari batek parte hartu zuen Herri Urratsen. Mikel Arregi Euskarabideko zuzendariak zioen bisita honen ondorioz proiektuak lantzeko ordua etorriko dela eta Nafarroako Gobernuak bat egiten duela euskarara sustatzen duen ekitaldi guziekin. Hautetsi ainitzek azpimarratu zuten Iparraldean laster sortuko den herri elkargorakak euskara sutatu eta mugaz gaindiko harremanak sendotzeko balio izanen duela.

PAXKAL INDO:
«AZKEN TALOA ERE GARRANTZITSUA DA EUSKARARENDAKO IPARRALDEAN»

Paxkal Indo Seaskako presidenteak adierazi zuen lege egokia behar dutela ikastolek gaur egungo arauak



ARGAZKIAK: FRANCK DOLOSOR

Giro bikaina izan da aurten ere aintziraren inguruan.

oztopoak besterik ez baitira. Laster Iparraldean sortuko den erakunde berriak, ororen gainetik, lehentasuna euskarari eman behar duela galdetu zuen Indok. Laster 50 urte beteko dira lehen ikastola ireki zela Iparraldean, Arrangoitzen. Orduan nahi izan zen euskara salbatu, baina gaur egun lanerako hizkuntza bilakatuko dute lanbide heziketa sail berriarekin.

Urtean zehar ekintza gehiago antolatzen da: "Euskaraz bizi", Olenzero, edo ihauteriak eta denak garrantzitsuak dira Indoren erranetan, «azken taloa ere garrantzitsua da euskararendako Iparraldean».

ETENGABEKO GARAPENA

3.500 ikasle pasa dituzte 34 ikastolatan eta 15 urteren buruan, 6.000 izanen dira. Duela hila-bete batzuk Azkaraten zabaldu zuten ikastola berria 14 haurrekin. Gainera, herri horretako eskola bakarra ikastola da ikastetxe publikoa duela mende laurden itxi baitzuten. Basusarrin ere auzapezaren laguntza izan dute ikastola sortzeko. Bertze proiektua dute Bokalen ikastola berria egiteko elkar-lanean Calandretarekin, okzitanierazko eskolekin. «Ez gara hetsiak eta ez gara geto batean bizi, hizkuntza guztiak maite ditugulako» dio Paxkal Indok. Pirineo Atlantikoetako departa-

menduaren mende-baldean zabalduko den lehen Calandta ikastolen mugimenduak lagunduko du ondorioz.

Herri Urrats egunean, eta urte osoan, jende asko lanean ari da xinaurriak bezala. Euskaltzaleen bateriak kargatzeko balio du besta haundiak Indoren arabera. Berriki zendu diren Bernadette Amorena, Jeanne eta Ernest Etchevery gogoan izan zituzten Herri Urrats egunean Senpere eta Sara aldeko euskaltzale ainitzek. Hiruek aspalditik parte hartzen zuten bestan, biziki atxikiak baitziren eskuarri. Aurtengo hitzordua- ren arrakasta beraiena ere bada.

SARA

KULTURA → MAIATZAREN 28AN

Aurten ere programa aberatsa du Usopop festibalak

Lizarrietako kaskoan kontzertuak eta ikuskizunak

Joana GERENDIAIN

Bere 7.ediziorako berriz ere Usopop festibalak programa aberatsa proposatzen digu maiatzaren 28rako. Lizarrietako kaskoan Kanadatik etorritako Evening Hymns folk-rock taldea, musika elektonikoa eta bertze soinu, perkusio nahasten dituen Tours-eko Drame krautrock karibear taldea, Euskal Herriko Amorante herri kantua,

folklore eta elektronika nahasten dituen, eta Europa iparraldetik datorren Fugu Mangu taldea entzuten ahalko dira, azken honek bere pop erritmo afrikar nahasketarekin giroa berotuko du.

Bertzalde, festibalak ikusgarri leku bat eskainiko die, eta aurten Bilaka kolektiboaren *Negua* ikuskizuna emana izanen da. Kontzertuez gain, egun horrenztzat eraikia izanen den usotegi dorre batetik Berut eta Martial Jésus disko jartzaileek musika zabalduko dute. Arratsaldeko 3etatik 7ak arte haurrentzat xoko bat



UTZITAKO ARGAZKIA

Laugarren mailako finala galdu dute Basurdeek Bardozen

Apirilaren 30ean Basurdeek 4. mailako finala galdu zuten Bardozen 11-6 Sauveterreko ekiparen kontra. Finala, horretan, saratarrek atxiki dute baina garaitua izan ez den aurkako ekipak azken minutuetan entsegu bat markatu du. Saratar multzo eder bat mugitu da Basurdeak sustengatzeko.

izanen da, leku bat lasaitzeko, eraikitzeko eta gozatzeko, sartzeari urrik izanen da 12 urtera arte.

Esku baloi lehiaketa

Ekainaren 4an, arratsaldeko 1:30etik goiti Sarako Urtxintxak elkarrekin esku baloi lehiaketa bat antolatzen du ki-

roldegian. Neska talde edo talde mixtoak onartuak dira. Izen emaitak 0631215792 zenbakira deituz eginen dira. Iluntzean zintzur bustitze bat izanen da, talo edo muskuiluak jaten ahalko dira.

Antzerkia

Maiatzaren 27an, ortzirale gauez, Olhain

ikastolako euskaraz bi-zi taldeak antzerki emaldi bat antolatzen du Olhaineko dantza gelan (lehenagoko zahar etxean, ileapaindegia eta lore dendaren ondoan). Gaueko 8:30ean hasi eta *Amatur* eta *Tipul* eta *Putil* antzerki taldeak ikusten ahalko dira. Sartzeari 4 eurotan eta haurrentzat urrik izanen da.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

●●●●●●●●●●

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA
ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

●●●●●●●●●●

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

erran

Mendialdeko Albisteak
TTIPI-TTAPA aldizkaria eta XORROXIN irratia
elkarrekin eskuko telefonoan eta tabletan

e ERABILI ETA ZABALDU EDUKIAK










Martzutzak
ZURE OSPAKIZUNETARAKO
BEHAR DUZUN GUZTIA

- ♥ Soinekoak
- ♥ Ilerako apaingarriak
- ♥ Poltsak
- ♥ Bisuteria
- ...

Bidasoa, 12 • BERA
948 631 425

EZKONTZAK

Natalino Firmino Ramos Cabral eta **Estibaliz Campo Etxepeteleku**, Cabo Verde eta Iturengoa, maiatzaren 3an.
Rafael Zorrilla eta **Marie Davy**, Sarakoak, apirilaren 30 ean.
Olivier Jean eta **Vaérie Porcher**, Sarakoak, maiatzaren 6an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK


Silvia Etxarte Abuin, Lesakakoa, apirilaren 20an.
Martxel Criado Arruabarrena, Lesakakoa, apirilaren 22an.
Ane Portu Crespo, Lesakakoa, maiatzaren 1ean.
Irene Iguzkiagirre Mungia, Igantziakoa, apirilaren 24an.
Naia Etxarte Elizalde, Doneztebekoa, maiatzaren 1ean.
Joel Ramos Campo, Iturengoa, apirilaren 19an.
Leire Belleret Etxeberri, Sarakoa, apirilaren 23an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua



Koskontako b., 71 LESAKA | 948 635 458

HERIOTZAK

Anastasio Otxoteko Almandoz, Lesakakoa, apirilaren 27an, 82 urte.
Juan Iñarrea Bikondo, Erratzukoa, apirilaren 27an, 86 urte.
Miguel Mindegia Ezkurra, Eratsungoa, apirilaren 29an, 87 urte.
Bernardino Otxandorena Almandoz, Zubietakoa, apirilaren 29an, 87 urte.
Manuel Saharrea Etxegarai, Elizondokoa, apirilaren 30ean, 77 urte.
Maria Eugenia Urrutia Jauregi, Elizondokoa, apirilaren 30ean, 67 urte.
Pedro Maria Quevedo Beola, Elizondokoa, maiatzaren 2an, 82 urte.
Jaime Galzagorri Bikondoa, Sunbilla, maiatzaren 3an, 54 urte.
Maria Pilar Migeltorena Sagardia, Doneztebekoa, maiatzaren 9an, 82 urte.
Maritxu Barriola Zabaleta, Leitzakoa, maiatzaren 10ean, 83 urte.
Joseph Barrentxe, Sarakoa, apirilaren 19 an, 79 urte.



Severiano MITXELENA JORAJURIA

Sunbilla, 2011ko maiatzaren 18an
V. URTEURRENA

Denbora pasatu da,
baino zure hutsa gurekin betirako geratu da,
beti gogoan zaitugu eta gure artean
bizirik mantentzen dizugu,
Mila esker erakutsitako guztiagatik,
eta urrunetik bada ere gurekin egoteagatik.

Mila muxu Severiano zugana,
gure altxor maitatu eta laztana.
Betirako etxean egongo zarena.

EMAZTEA, ALABA, SENIDEAK ETA FAMILIA

MARIA EUGENIA URRUTIA GURE MAISTRA

*Esker mila,
gure eskola txikien
familia handi honetan,
hizkuntza txiki bat
eta amets handi bat
kabitzen direla
sinetsarazteagatik.*



Jabierto TELLETXEA IÑARGA

Mariatxien maitalea, zure alaitasunean dantzan ere ibiltzen zinen dantzari onen parean lanean irribarretsu beti umore onean inoiz ez zenun etsitzen arazo baten aurrean. Aunitz ikasi dugu bai zurekin lagunartean lanean jartzen gintuzun zahar, haur eta gazteak faltan botako zaitugu Agerra auzo aldean ta hemen egonen zara beti gure bihotzean.

Milesker Jabierto.

AGERRA AUZO

FUTBOLA → PREFERENTE MAILARA

Liga irabazi eta kategoriaz igoko da Doneztebe Futbol Taldea

Leitzako Aurrerak, aldiz, maila galdu du

TTIPI-TTAPA

Liga hasieran ametsa zena bete du Doneztebe Futbol Talde nagusiak: mailaz igoitea. Ez nolanahi gainera. Final kutsuko ligako azken partida suertatu zitzaion, sailkapenean bigarren zen Lezkairuren kontra aritu behar baitzuen etxeko

kanpo. Berdinketa aski zuen liga irabazteko eta mailaz igoiteko eta horixe egin zuten doneztebarrek (0-0), Soto Lezkairura hurbildu ziren jarraitzaile ugariaren gozamenerako.

Aipatzekoa da, modu berean, Baztan Futbol Taldeko jubenilek Liga Nazionalen jokatu dutela heldu den denboraldian, Nafarroako jubenilen lehen mailatik igota. Hirugarren izan dira sailkapenean



ARGAZKIA: FOTO ZALDUA

Doneztebe Futbol taldeko jokalariek kontent, Lezkairun liga irabazteko eta mailaz igozteko aski zuten berdinketa lortu ondoren, zaleekin batera.

eta bertze mailetan izan diren talde nafarren igoerak baliatu dituzte koxka bat goiti egiteko.

Bertze aldean, Leitzako Aurrera futbol talde nagusiak maila galdu du eta hau idazterakoan, oraindik maila segurtatu gabe zuten Baztan eta Beti Gazteko talde nagusiek. Berako Gure Txokoa, berriz, azken partidara arte borrokan ari zen Gipuzkoako Preferenterako igoeraresean.



UTZITAKO ARGAZKIA

Baztango jubenilek lehen aldiz Liga Nazionalen jokatu dute.

HERRI LASTERKETAK → MAIATZAREN 8AN

Casadok eta Pachak irabazi dute aurten ere Iruritako Herri Lasterketa

Alberto Barberena elizondarra bigarren izan zen gizonen artean

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 8an burutu zen Iruritako VIII. Herri Lasterketa. Gizonezkoek 7 kilometro eta erdiko lasterketa egin zuten eta emakumezkoek 5 kilometrokoa.



UTZITAKO ARGAZKIA

Gizonezkoen eta emakumezkoen podiuma Iruritan.

Gizonezkoen artean, Antsoingo Antonio Casadok 25 minutu behar izan zituen lasterketa burutzeko. Alberto Barberena elizondarra bigarren izan zen, 46 segundora eta hirugarre-

na Lizarrako Ruben Juaniz, minutu eta 19 segundora.

Emakumezkoetan, Vanesa Pachak 19 minutu eta 29 segundoko denborarekin irabazi zuen. Espartzako Irati

Puigdefabregas gazteak lortu zuen bigarren postua (22:35) eta Egueseko Amaia Garciak osatu zuen podiuma (27:38).

Guztira 33 korrikalarik parte hartu zuten.

MENDI LASTERKETAK → MAIATZAREN 21EAN

Bi ibilbide izanen ditu aukeran aurten ere Goizutrail lasterketak

10 kilometro ditu laburrenak eta 25 luzeak

TTIPI-TTAPA

Iazko arrakasta ikusita, aurten ere bi ibilbide izanen ditu aukeran Goizutrail mendi lasterketaren hirugarren edizioak maiatzaren 21ean Goizuetan, bata 10 ki-

lometrokoa eta bestea 25 kilometrokoa.

Herriko plazan (154 metro) hasiko dira bi ibilbideak larunbat goizeko 9etan, Aitasemegi auzora igoko dira korrikalari guztiak xenda estu batetik. 4 kilometrotan xenda eta piste-tatik barrena 680 metroara dagoen Eneko Elorriko bizkarrera igo-



UTZITAKO ARGAZKIA

Mandoezin, harrespilen artean ibiliko dira korrikalariak

ko dira, eta hemendik herrira jeitsiko dira Espideko sorotik pasatuz.

10 kilometroko ibilbide motza egin behar dutenek herrian bukatuko dituzte lanak, 631 metroko desnibelarekin.

25 kilometroko ibilbide luzea aukeratzen

dutenek, ordea, Alkain-zuriain auzotik Mandoe-giko gailurrera igo beharko dute, 1.045 metrora. Ondoren Mandoe-giko gailurretik jarraituko du ibilbideak harrespilen artean eta bukatzeko berriz ere herriko plazara jaitsiko da. Des-

nibela 1.636 metrokoa da eta ibilbide guztia mendiko xenda pista eta larrean zehar izango da. Izen ematea zabalik dago www.herrikrossa.com webgunean bezpera arte eta egunean berean Goizuetako plazan ere egin daiteke.

MENDI LASTERKETAK → MAIATZAREN 1EAN

Iñaki Mihura arraioztarrak irabazi du Urdazubiko Kontrabandisten Lasterketa

Arantzako Dani Iparragirrek eta Berako Angeltxo Aranibarrek osatu zuten gizonetako podiuma

TTIPI-TTAPA

Arraiozko Iñaki Mihurak irabazi zuen maiatzaren 1ean Urdazubiko Kontrabandisten lasterketa. 88 korrikalarik akitu zuten 15,8 kilometroko ibilbidea, 67 gizasemek eta 21 emakumek. Mikel Beunzak ordubete, 11 minutu eta



UTZITAKO ARGAZKIA

Kontrabandisten Lasterketan parte hartu zutenetako batzuk, Urdazubiko plazan.

23 segundo behar izan zituen ibilbidea osatzeko eta minutu bat eta segundo bateko aldea ateratzen bigarren izan zen Daniel Iparragirre arantzarrari (1h12:24). Angeltxo Aranibar beratarrek osatu zuten podiuma (1h13:10). Eskualdeko korrikalari gehiago ere izan ziren ohorezko postuetan. Arantzako Imanol Lukanbio seigarren izan zen, Ber-

tizaranako Joseba Elizagoien zazpigarren, Sarako David Nesprias zortzigarren, Berako Joseba Lasarte bederatzigarren eta Miguel Angel Iñarrea baztandarra hamargarren. Jon Arrieta izan zen lehen urdazubiarra (26.).

Emakumezkoetan, Sara Peña oriotarra izan zen irabazle, azkeneko bi urteetan bezala (1:28:48), Maite Karrika

baztandarra bigarren (1:32:10) eta Pauline Bernis hirugarren (1:34:40). Lesakako Idoia Maritxalar bosgarren izan zen eta Leticia Arrieta izan zen lehen herritarra (16.).

Urdazubiko gazteriak eskerrak eman nahi dizkie parte hartu duten lasterkari guziei, baita laguntzaile eta antolakuntzan parte hartu zuten guziei ere.

maiatzak 19 - ekainak 2

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.eus edo 948 63 54 58tuan. Izena: 615 730
792 edo info@irauli.org.

Antzerkiak



IGANTZI | 2016.05.20-22

Udaberriko Bestak ekitaldi ugariarekin

Dokumentala, kontzertuak, antzerkia, dantzariak, merkatua... Hiru egunez ekitaldi saila izanen dituzte Igantzina, Euskara Batzordeak antolatuta.

Azokak



LEITZA | 2016.05.29

XXXVIII. Eskulangintza Azoka Kultur Aroaren barne

Ekitaldiz hornitutako Kultur Aroa aurrera doa Leitza eta hutsik egin gabe, horren baitan eskulangintza azoka antolatu dute. 11:00etatik aurrera izanen da, plazan.

Kontzertuak



SARA | 2016.05.28

Usopop festibalaren zazpigarren edizioa

Drame, Amorante, Fügü Mango, Evening Hymns, Negua, Beirut DJa eta Martial Jesus gonbidatu dituzte Lizarietako lepora. 16:00etan hasiko dira.

Ipuin-kontalariak

DONEZTEBE

Ipuin txokoa

Maiatzaren 23 eta 31n
10:30ean Liburutegian.

Antzerkiak

BERA

Mugaz gain

Maiatzaren 19 eta 20an.

IGANTZI

Eskolako haurren saioa

Maiatzaren 21ean Baratzondan, 18:00etan.

SARA

Amatur eta Tipul eta Putil

Maiatzaren 27an Olhaineko dantza gelan, 20:30ean.

Dokumentalak

ARANO

'Euskaraz gara'

Maiatzaren 20an
19:00etan, udaletxean.

IGANTZI

'Neskatoak'

Maiatzaren 20an
19:00etan, Eskolazarren.

BERA

'Neskatoak'

Maiatzaren 21ean Kultur Etxean 19:00etan.

LEITZA

'Urumea'

Maiatzaren 22an Zinean, 19:30ean.

'Euskaraz gara'

Maiatzaren 25ean
udaletxean 19:30ean.

LESAKA

'Hain luze, hain labur'

Maiatzaren 28an Harriondoan, 19:00etan.

DONEZTEBE

Dokumentala eta hitzaldia

Maiatzaren 31n Loczy, una escuela de civiliza-

Erakusketak

SARA

Margoak eta eskulturak

Maiatzaren 19tik ekainaren 2ra Lur Berrin.

LEITZA

Margoak eta eskulturak

Maiatzaren 29ra arte Mikel Alkoz eta Koke Ardaizen lanak Garbilekuan.

BORTZIRIAK

Bortzirietako 10. haur garapen jardunaldiak: ikasketan arazoak

Maiatzaren 21etik 25era Berako Kultur Etxean.

Maiatzaren 26 eta 27an Lesakako Kultur Etxean.

Ekainaren 1ean Arantzako eskolan.

Ekainaren 3an Etxalarako Kultur Etxean.

Hitzaldiak

LEITZA

'Emakumeen adoktrina-mentua historian'

Maiatzaren 19an Ate-kabeltzen, 19:00etan.

'Asia eta Amerika Amets bat eta hamaika irrifar'

Maiatzaren 23an Aurreran, 19:30ean.

'Dieta garbia'

Maiatzaren 24an Aurreran, 19:30ean.

'Ametsen liburua'

Maiatzaren 26an Ate-kabeltzen, 19:30ean.

ZUBIETA

Lehen laguntzari buruz

Maiatzaren 20an
17:00etan ludotekan.

ELIZONDO

'Baztan Etnografia eta paisaia'

Maiatzaren 20an Baztango Museoan (19:00).

'Montessori etxean' hitzaldi tailerra

Maiatzaren 28an
Baztan Haur Eskolan,
10:00etatik 13:00etara.

BERA

'Lanera itzultzekoa naiz. Edoskitzearekin jarraitu dezaket'

Maiatzaren 23an Bera-landaetan 17:00etan.

Tailerrak

BERA

Bortzirietako 10. haur garapen jardunaldiak: ikasketan arazoak

Maiatzaren 21ean Kultur Etxean.

LEITZA

'Nola antolatu zure agiriak zerga-betebeharrak betetzeko'

PROPOSAMENA

ITUREN

Malerrekako Eguna maiatzaren 28an

10:00etatik aitzinera ekitaldi saila prestatu dituzte egun osorako: harrera ekitaldia, musikariak, dantzariak, kantariak, artisauak eta talogileak, paella jatea eta herri afaria, buruhandiak, aizkora apustua... Omenaldien tartean, 85 urte baino gehiagoko herriarrak eta joaldun zaharrak omenduko dituzte. Eta heldu den urteari begira, Urrozek hartuko du Malerrekako Egunaren lekukoa.



zion dokumentala eta ondotik hitzaldia Askin Haur Eskolan (17:00).

Kontzertuak

SARA

Larrun Kanta

Maiatzaren 19an
21:00etan elizan.

UsoPOP festibala

Maiatzaren 28an
16:00etan Lizarietan:
Drame, Amorante,
Fügù Mango, Evening
Hymns, Negua, Beirut
DJa eta Martial Jesus.

GOIZUETA

Aralar Musika
Eskolako kontzertua

Maiatzaren 19an
19:00etan.

LEITZA

Aralar Musika
Eskolako kontzertua

Maiatzaren 20an
19:00etan.

**Sister SImone and The
Holy Balls**

Maiatzaren 20an
Torrean, 00:00etan.

Garesko abesbatza

Maiatzaren 22an eli-
zan, 12:30ean.

IGANTZI

AZ/DZ

Maiatzaren 20an La
Villa ostatuan 23:30ean.

DJ Banglash

Maiatzaren 22an La
Villa atarian 15:30ean.

ELIZONDO

Kontzertuak Gaztetxean

Maiatzaren 21ean Da-
ma, Eraso!, Kink Mullet
eta Ztah 22:00etan.

BERA

Entzunaldiak Musika
Eskolan

Maiatzaren 20an triki-
tixa eta akordeoi
entzunaldia, 18:00etan.

Maiatzaren 24an piano

entzunaldia, 18:00etan.

Maiatzaren 25ean per-
kusio saioa, 18:00etan.

Maiatzaren 30ean bi-
bolina saioa, 18:00etan.

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua




Ioneri marimutilla deitu diote eskolan. Futboleak jokatzen duelako, ile motza daramalako... Berari, baina, bost axola zaio: gustatzen zaizkion gauzak gustatzen zaizkio, eta kitto. Izeba Naiararen ezkontzarako, ordea, arazo bat sortuko da, gurasoek soineko bat jantzarazi nahi baitiote Ioneri... Ana Jaka Andoainen jaio eta Iruñean bizi den idazleak egin du liburua eta Patxi Gallegok marrazkiak. Elkarrek argitaratu du *Eta zer?* bildumaren barnean. Zortzi urtetik goitikoentzako da.

Musika



Eskan Kristö Arratiako (Bizkaia) taldeak bigarren diskoa argitaratu du: *Ezkurrik onenak*. 2014an egin zuten aitzineko diskoaren bide bere-tik (*Azote kaldüz!*), 1970. hamarkadako rock&roll benetako enari eutsi diote berriz ere. Hitzak eta musikak ironiaz, burlaz eta zorakeriaz jantzi dituzte oraingo honetan. Musika honen gibelean boskote bat dago: Pello Artabe ahotsan, Alex Harillo eta Aritz Ontalvilla gitarrarekin, Peio Artetxe baxuarekin eta Imanol Arrese baterian. Sei abestiko diskoa da eta doinu guztiak taldeak berak egin ditu, letrak Pello Artabek eta marrazkiak eta diseinua Jon Artetxek. Disko hau Urdulizeko Tio Pete estudioan grabatu dute. Igor Delgadok ekoiztu, nahastu eta masterizatu du Londoneko Marmitako Studioan.

Internet



Zuk zeuk erraz egiteko moduko plater on-onak aurkituko dituzu *pagotxa.eus* atarian, pausoz pauso eta argi kontatuta, alferrikakorik batere gabe. Gal ez zaitez, sukaldean goza dezazun. Imanol Zubelzu, Javi Rivero eta Xolomo Sapiens sukaldari gazteek egiten dituzte errezetak, bertze kolaboratzaile batzuen laguntzaz. *Pagotxa.eus*-en aurkituko duzun errezeta bakoitza sukaldean egina eta mahaian frogatua izan da, behar den aldiz. Errezetak taldeka, sukalde mota, zailtasuna, data eta jakiaren arabera sailkatuak daude, bilaketa errazagoa izan dadin. Bisitariak ere badu tokia Interneteko atari honetan, edozeinek bidali baititzake errezetak, edo webgunean aurkitutako errezetak egin eta gero iruzkinak bidali ere bai. Sukaldeko hiztegia ere badu. Mahala produktuak eta Bilboko Geuria merkatua dira egitasmo honen babesleak.

GAZTELU

Physis vs Pelax

Maiatzaren 21ean
ostatuan, 22:00etan.

DONEZTEBE

Nikomen maitea

Maiatzaren 22an eli-
zan, 19:00etan.

ETXALAR

Jazz kontzertua

Maiatzaren 28an Le
petit baigneurs taldea
elizan, 19:00etan.

SUNBILLA

Agorreta Musika
Eskolako saioa

Maiatzaren 30ean
elizan, 17:30ean.

Ikuskizunak

LEITZA

'Harriarekin hizketan'

Maiatzaren 21ean Zi-
nean, 19:30ean.

**'Natura sentimenduak
eta emozioak'**

Maiatzaren 27an Zine-
an, 22:00etan.

Ospakizunak

IGANTZI

Udaberriko bestak

Maiatzaren 20tik 22ra.

LEITZA

Kultur Aroa

Maiatzaren 28ra arte.

Natur Bideen Eguna

Maiatzaren 22an.

UEMA Eguna

Maiatzaren 28an.

ITUREN

Malerrekako Eguna

Maiatzaren 28an.

DONEZTEBE

Yoga ospakizuna

Maiatzaren 29an es-
kolako gimnasioan, do-
hainik. 10:00-13:00.

Bestak

ALMANDOZ

Herriko bestak

Maiatzaren 25etik
29ra.

ETXEBIZITZAK

salgai

ORONÓZ-MUGAIRI. Pisua salgai, 90 m²ko azalerakoa. Etxe mobleztatua, berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela ditu. 90.000 euro negoziagarriak. Eta 60 m²ko bajera ere salgai 15.000 eurotan. **948 585036.**

ANZABAL

INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

URDAZUBI

- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE

- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobleztatua eta 17 m²ko trastelekuak.

Tel. 948 580 804

Faxa. 948 581459

anzabal@anzabal.com

ELIZONDO. Akullegi karrikan 2 logelako pisua salgai. Prezioa: 63.000 euro. **646 774117.**

LESAKA. Nabaz auzoan baserria eta 11.450 metro koadroko lur eremua salgai. **686 970618.**

ETXEBIZITZAK

errentan emateko

LESAKA. Pisua errentan emateko. Oso modu onean. **661 262531.**

BERA. Illekueta auzoan, pisua errentan, 3 logela, sukaldea eta egongela, denak balkoiare-

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.eus edo erran.eus


SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **10€** ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO **12€**
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutzako **3008 0080 56 0703304329** kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

kin. Garaje ederra etxe azpian. 550€ banko birtartez. **646 280396.**



BERA. Itzea karrikan pisua errentan emateko. Sukaldea, egongela, komuna eta hiru logela ditu, 85 m² inguru. Hirugarren pisua, igogailua dauka eta garajea ere bai. Oso eguzkitsua eta Altxate kalera bistekin, bi balkoi ditu. **669 954135 / 948 630354.**

BURLATA. Pisua errentan emateko. 3 logela, berogailuarekin. Erabat berritua. Prezio onean. **690 041308.**

IRUÑEA. Unibertsitate Publikotik 5 minututara pisua errentan emate-

ko. Sukaldea, egongela bere balkoiarekin, komuna eta lau logela ditu. Laugarren pisua da, igogailuarekin. Erabat berritua. **679 512963.**

**ETXEBIZITZAK**

errentan hartzeko

BERA. Pisu ttiki bat errentan hartuko nuke. Zakurra daukat. **625 138347.**

BERA. Pisua errentan hartu nahi dugun 2 neska arduratsu gara, mobleztatua eta egoera onean egotea. Biak lanean. 400 euro. **627 086071 / 663 420685** (deitu 20:00etatik aitzinera).

GARAJE/LOKALAK

errentan emateko

LESAKA. Albisturkarrikan lur azpiko garaje itxia errentan emateko. **618 962937.**

ZERBITZUAK

klase partikularrak

Klase partikularrak ematen ditut. DBH eta Batxilergoa: zientziak (matematika, fisika, kimika, natur zientziak), erdera, ingelera. Maite. **680 708259.**

ZERBITZUAK

zurgindegiak

ARANTZA

Zurgindegi.....

- Klase guzietako zurgin lanak
- Eskatu aurrekontuak konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea
Tel: 948 634 068 - 647 810 144
Gorritibaita - ARANTZA

LANA

eskaintzak

On-line lanean aritzea, zerbitzariak, komertzialak, autonomoak edo bertzelako langileak behar dira. **699 382673.**

URDAZUBI. Montxo ostatu-jatetxean esperientzia duen sukalderia behar da. **948 599039.**

BERA. Jatetxe batean zerbitzaria behar da. **948 630392.**

ZUGARRAMURDI. Altxatenean jatetxean zerbitzaria behar da, esperientziarekin eta frantsesa dakiena. Asiteburueta abuztuan lan egiteko, eguerdian. **948 599187.**

LESAKA. Atxaspi Ostatuan lagun bat behar da tabernan zerbitzari eta sukaldean laguntzaile lan egiteko. Currikuluma: alejandro@atxaspi.com-era bidali edo 673 339920ra deitu.

IGANTZI. La Villa jatetxean zerbitzari bat behar da barran aritzeko eta mahaiak zerbitzatzeko. **634 592788.**

ZUGARRAMURDI. Graxiana aterpeko jatetxean lan egiteko zerbitzaria behar da, esperientzia pixka bat duena eta frantsesetik dakiena. **675 711498.**

SARA. Urtxola jatetxean sukaldari laguntzailea behar da, esperientzia duena. **686 561525.**

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(apirilaren 29tik maiatzaren 6ra bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

Zerrikumea
(19 kilo): 32 €

Zerri gizena
0,985 € kilo.

Zerramak:
0,540 € Kg/bizirik.

**BEHIKIA**

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 4,16
1.koa 3,93
2.koa 3,75
Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,24
1.koa 3,97
2.koa 3,80

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.
Aretze ttikiak
(15 egun ingurukoak):
Aretze mestizoak:
urruxak 140,00
idixkoak 228,00

Aretze nabarrak:
urruxak 120,00
idixkoak 180,00
Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 3,03/3,13
Zaldi-behorrak: 1,84/2,04
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 5,40/6,40
8-10 kilokoak: 4,60/5,00

BAZTAN. Mahaiak zerbitzatzen lan egiteko zerbitzari euskalduna behar da. ☎663 621982 (whatsappez).

BERA. Frantses pixka bat dakien pertsona behar da Larungo benta batean udan lan egiteko. ☎948 631100 / 607 566022.

ZUGARRAMURDI. Kattalin jatetxean udarako zerbitzaria behar da. Frantsesez jakitea eta esperientzia edukitzea beharrezkoa da. ☎948 599009 / 948 599146.

LANA eskariak

**ELIZONDO eta INGU-
RUAN** mutila lan bila. Ostalaritza eta adinekoak zaintzen esperientziaduna. Alor horietan interesatua lan egiteko. ☎722 316606.

**ELIZONDO eta INGU-
RUAN** adinekoak zaintzen esperientzia duen 46 urteko emakumea, adinekoak zaintzeko lan bila. ☎677 362626.

Garriolari bezala esperientziaduna C + E kar-netaduna (kamioia eta trailerra gidatzeko) eta eraikuntza esperientziaduna lan bila. **Ga-
rraiolari edo eraikun-
tza lan egiteko** norbait behar izanez gero, deitu. ☎608 720859.

16 urteko **neska bera-
tarra** udan zuen seme-alabak zaintzeko prest dago. ☎678 968495.

**DONEZTEBE edo
BAZTAN ALDEAN.** Elizondon bizi den 27 urteko neska euskaldun batek adinekoak zaintzen, zerbitzari bezala, administrari bezala, saltzaile bezala edota garbiketari lanetan, lana egiten luke. ☎649 901395.

**ELIZONDO eta INGU-
RUAN** neska bat lan bila. Adinekoak eta haurrak zaintzen esperientzia handikoa. Adinekoak zaintzeko interna edo ordutegia edota garbiketari lanetan aritzeko interesatua. ☎631 039914.

Garbiketari alorrean esperientziadun **emakumea** Elizondo eta inguruko zonaldean ordutegia garbiketari lanetan aritzeko prest. ☎639 311479.

**Administrazioko ikas-
ketak dituen emaku-
mea lan bila.** Katalana, gaztelera, frantsesa eta ingelese dakizkiena. Eta informatikako ikastaroak dituen. Administra-
ri, saltzaile eta harreragile bezala esperientziaduna. Alor hauetan edota garbiketari, adinekoak eta haurrak zaintzeko interesatua. ☎646 258011.

Neska euskalduna ordutegia edo arratsaldetan lan egiteko prest. Edozein lanetan: helduekin eta haurrekin esperientziaduna. Asteburuetan ere prest. Uda partean, nire etxean haurrak zainduko nituzke. ☎629 666634

42 urteko **emakume ar-
duraduna eta euskal-
duna** edozein lanetan aritzeko prest dago. Hel-
duak edo haurrak zain-
tzen esperientzia duena. Garbiketari ariko litzateke ordutegia. Arratsaldeaz dendaria aritzeko ere prest. Gauak ospitalean edo etxean pasatzeko ere bai. ☎674 835744.


ANIMALIAK oparitzeko

**Gorbeiaiko ardi zaku-
rra oparitzeko.** Emea, urte eta erdikoa. ☎661 767027.

Katakumeak oparitzeko. ☎619 988383.

ANIMALIAK salgai

**Labrador arrazako 6
zakurkume** salgai Arantzán. 3 arta 3 eme, denak kanela kolorekoak. ☎699 723310.



Behi blondak salgai, er-
nari edo aratxearekin. Interesatuak deitu kon-
promisorik gabe. ☎670 303520.

MOTORRAK salgai

Kuhn GMD 44 marka-
ko **belarra mozteko
makina** salgai. ☎659 230236.



**Belarra mozteko bi
platodun makina** sal-
gai. ☎626 660675.

WV Golf 1.6 FSI salgai (2004koa), 115 CV, 138.000 km, gasolina, gris/zilar kolorekoa, 5 ate eta 6 martxa. Jabe ba-
karra, garajea gordeta, ITV pasa berria eta se-
gurua indarrean irailera arte. Kotxea egoera onean dago, baina espazioz txikia gelditu zaigu. 4.900 euro. ☎618 042800.

URDAZUBI. Belar bola en-
zintadora salgai. Su-
pa pack. Karroduna, egoera onean, arras gu-
tti erabilia. Traktore er-
tainak ere aisa erabil de-
zake. ☎606 586603.

**Belarrari buelta ema-
teko makina** salgai. Oso gutxi erabilia, 2,30 metroko zabalera. ☎639 419955.



DENETARIK salgai

Sei **altzairuzko frega-
dera** salgai, haundiak, 1,5 metro luze, forma borobildunarekin. ☎948 585036.

**Ate bat duen bainuon-
tzia** salgai. Jende hel-
dua zein mugikortasun gutxi duenarentzat ha-
gitz erosoa. Altuera 1,05 metro, luzera 1,50 metro eta zabalera 0,68

metro. Berri-berria. ☎609 477277.



ORONÓZ. Egurra xe-
hetua salgai. Pagoa eta haritza. Etxera erama-
nen da. ☎676 242520.




Haritz egurra salgai Donezteben. Haritz egur lehertua, 40 euro tona. ☎686 314036.



**Haritz egur mazizoko
logela osoa** salgai. 1,50 metroko ohea, bi gau-
mahaitxo eta sinfonier dotorea. Oso egoera onean. ☎607 804723.



**Gaztain egurrezko jan-
gelako altzariak** salgai. Mahaia, lau aulki, toka-
dorea eta bitrina. Azpei-
tiko Lasao altzariak-ek egina. ☎607 804723.



Automóviles IMOB
Okasioko ibilgailuen salerosketa
FORD auto berriak eta Km 0
CITROEN NEMO 2012
4.000€ + IVA

VW PASSAT 2012
DIESELA 140CV - 109.000 KM

FORD C-MAX 2012
DIESELA 115CV - 83.000 KM

Irun-Iruña errepidea
N-121-A 63 km BERA
948 630 750 | 648 231 361
www.automovilesimoba.com

Ohe artikulatua salgai, 90 cmkoa, koltxoia-
kin, alboko barrarekin...
☎678 445521.

DENETARIK galdu-aurkituak

GOIZUETA. Gaztetxe-
aren ondoan giltzak to-
patu dira. ☎948 514006.

**IRA-
GAR-
KIA**

aldizkarian
interneten

10 EURO

ttipi-ttapa
Tel. 948 635 458
erran.eus

urtebetetzeak

Argazki soila: 5€; bikoitza: 10€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,42€ko 12 edo 24 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 5 edo 10 €ko txekia; 4) erran.eus bitartez



KEPA LEKUONA OLAIZOLA
Zugarramurdi-kanboarrak
maiatzaren 5ean Lehenengo
Jaurnartzea egin du. Zorionak
aunitz! Urdazubitik zure lehengusu
Pablo Irazoki Olaizola eta familia.



Lesakako **MAITANE** eta **UGAITZ**
CANAL ARTOLAK 2 urte bete dituzte
maiatzaren 4an. Zorionak bikote!
Zeinen jatorrak eta bixiak zaude-
ten!!! Muxu handi handi bat aita-
txo, amaxo eta Julenen partetik!!!



NAROA ELIZALDE LARRETXEa gure
etxeko printzesak 3 urte bete ditu
maiatzaren 3an. Zorionak familia
guztia partetik, baina bereziki
aita, ama eta Oinatz partetik!
3 muxu haundi!!!



OIER IPARRAGIRRE ALBERDI arantz-
arrak 2 urte bete ditu maiatzaren
12an. Zorionak pretxioxo! Segi beti
bezain irrifartsu! Arantzako eta
Errenteriako familien partetik.
Aunitz maite zaitugu!!! Attato,
amatto eta Aritz.



Sunbillako **MARI KRUZ**
GOROSTERRAZU ELIZALDE apirilaren
30ean urteak bete zituen. Egun
ederra ospatu genuen eta eskerrak
eman nahi dizkiogu amaxiri egin-
dako afari ederragatik. Muxuak
Ibai, Iraide eta Garaineren partetik.



Berako **AINHOA LARRETXE**a
AGIRREk maiatzaren 13an urteak
bete ditu. Bat, bi, hiru...
Hogeiraino kontatu dugu zuri bela-
rritik tira egiteko. Ongi pasa eta
aunitz urtez etxeko partetik.



Goizuetako **IZARO SALDIAS**
MAKAZAGAK 4 urte bete ditu
maiatzaren 14an. Zorionak eta
muxu haundi bat familia guztia partetik!



IBAİK maiatzaren 28an 4 urte
beteko ditu. Aunitz urtez gure
morrokoari eta mila muxu potolo.



Lesakako **AIERT** eta **ELORRI**
AROTZENA PORTUK 5 urte bete
dituzte maiatzaren 6an. Zorionak
eta bortz muxu haundi familia
osoaren eta bereziki Orti eta
Lexuri anai-arreben partetik.
Aupa Rosi eta Markez!!!





Mendinueta 8B ELIZONDO
Tel.: 948 452 772 | 607 631 881 | 637 895 032
tinka@tinkaenergiak.com
www.tinkaenergiak.com

BULEGOKO ORDUTEGIA
Astelehenetik ortziratera: 09:00-13:00 | 16:30-19:30
Larunbatetan: 09:00-13:00

PELLET ETA EGURREZKO BEROGAILU ETA GALDARAK

Energia kontsumoa %60 aurreztu liteke egur edota pellet bidezko berokuntza sistema aurreratuak erabilita



Julian Otondo
Etxezuria landetxea

Zigako Etxezuria landetxekoek 2014ko urtarrilean aldatu zuten euren landetxe-ko berokuntza sistema. Tinka Energiak instalatutako egurrezko galdara jarri zuten eta Julian Otondok, Etxezuriko jabeak, dio «orain erraz berotzen dira zazpi logelak. 16 lagunendako tokia du eta etxeak ere bertan bizi gara». Euren beharretarako «berokuntza sistema egokiena» dela dio Julianek «lehen

gas propanoa genuen tanke batekin eta inolaz ere, ez nintzateke sistema horretara bueltatuko. Egia da egurra prestatzeko lan egin behar dela baina emaitza aise hobe da. Egurra osasunerako hobe da eta merkea, aurretutako dirua arras garrantzitsua da guretzat»



INFO +

EGINDAKO LANAK:



ETXEZURIA LANDETXEAK | Ziga



URRUSKA LANDETXEAK
Elizondo



FAMILIA BAKARREKO ETXEBIZITZA



Instalatzaile
baimendua:

tinkaenergiak



ttipi txartela rekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57

info@ttipi.eus | erran.eus

ttipi txartela

Miren IPARRAGIRRE HUALDE
72673111-B
04/2016
Zk. 181972

**ZOZ
KETAK**

Lesakako Piztina - 2 sarrera

Tere Bereau Macicior | BERA

Baztan Abentura Park - Tirolina 2 tiket

Peio Etxeberria Irigoien | URDAZUBI

Arkupe - Txokolate lote bat

Jone Mitxeo Iriarte | ALMANDOZ

Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera

Marta Txibite De Miguel | ARESO

Onddo ta Punto - Kamiseta bat

Aitziber Ugalde Lizarreta | SALDIAS

Donostiako Aquariuma - 2 sarrera

Lourdes Otermin Otsalo | LEKUNBERRI

Lanku - CD bat

Javier Mitxelena Bazterrika | SUNBILLA

Lanku - CD bat

Pello Etxandi Juanikotena | ARRAIOZ

Lanku - CD bat

Xelmi Unanua Goñi | GARTZAIN

661.
aleko
irabazleak



2 OTORDU
MIKELEN BORDA
www.mikelenborda.com



SARRERAK
ZUGARRAMURDIKO LEZEAK
www.turismozugarramurdi.com



2 OTORDU
ZUBIETAKO HERRIKO OSTATUA
www.arkupgezotegia.com



GONBIDAPENAK
EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
www.eurekamuseoa.es



KAMISETA BAT
BUATXABAL
www.buatxabal.eu



2 SARRERA
DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com

**LI
BU
RU
AK**



- 100 kontu ondo ezagutzeko zientzia
Itzulpena: Nagore Irazustabarrena
- Nire lehen espaziozko liburua
Itzulpena: Nagore Irazustabarrena
- Ama Medusa
Itzulpena: Uxue Alberdi



TTARTTALO
www.ttarttalo.eus

**DES
KON
TUAK
%**

**Olaia
Bazar**

LEITZA | %10, 30etik gorako erosketetan



LEITZA | %5, 30etik gorako erosketetan



txinelka

LESAKA | %10



ttipi-ttapa

LESAKA | %10, eskeketan

**ELBETEKO
POSADA**

ELBETE | %10, kartan 30etik gora
txartela duenari

**ALZURI
ELEKTRIZITATEA**



LESAKA | %5, etxetresnetan